SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2026ko ekaina

IMMIGRAZIOA DONOSTIA EKIALDEAN

Altza, Bidebieta eta Intxaurrondoko immigrazio-biztanleriaren integrazio soziolinguistikoa

Miren Otxotorena Aranguren eta Asier Basurto Arruti

AURKIBIDEA
1 SARRERA 2
2 HELBURUAK ETA IKERKETA galderak 3
3 OINARRI TEORIKOA 4
3.1 MIGRAZIOA 4
3.2 INTEGRAZIOA 5
3.2.1 Integrazio soziolinguistikoa 8
3.2.2 Integrazio sozial eta soziolinguistikoaren piramidea 9
4 TESTUINGURU SOZIODEMOGRAFIKOA 12
5 METODOLOGIA 15
5.1 IKERKETA KUALITATIBOA 15
5.2 ELKARRIZKETAK PRAKTIKA SOZIAL GISA 16
5.3 DATUEN ANALISIA 16
5.3.1 Ikerketa-oharra 17
6 PROZESUA 17
6.1 EMANDAKO URRATSAK 17
6.2 EPEAK 20
6.3 EGOKITZAPENAK ETA HAUTUAK 20
7 EMAITZAK 22
7.1 BIZIRAUPENERAKO INTEGRAZIOA 22
7.1.1 Euskara biziraupeneko integrazioan 24
7.2 LAN EDOTA HEZKUNTZA MUNDUKO INTEGRAZIOA 24
7.2.1 Lana 24
7.2.1.1 Euskara lan-integrazioan 26
7.2.2 Hezkuntza 28
7.2.2.1 Euskara hizkuntza-integrazioan 29
7.3 INTEGRAZIO SOZIALA ETA KULTURALA 31
7.3.1 Euskara integrazio sozial eta kulturalean 35
7.4 IDENTITATE INTEGRAZIOA 36
8 ONDORIOAK 38
8.1 HAMAIKA MUNDU 38
8.2 NORABIDE BAKARREKO INTEGRAZIOA, ARRAZAKERIA ETA KLASISMOA 40
8.3 EUSKARA? 40
9 AZKEN HAUSNARKETAK ETA AURRERA BEGIRA 41
9.1 INTEGRAZIOAREN IKUSPEGI HOLISTIKOA 41
9.2 ZER EGIN DAITEKE? 42
10 BIBLIOGRAFIA 45
11 ERANSKINAK 49
11.1 IMMIGRANTEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETEN GIDOIA 49
11.2 BERTAKOEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETEN GIDOIA 52

1 SARRERA

Soziolinguistika Klusterrak Donostiako Udalaren eskariz aurrera eramandako ikerketa lanaren prozesua eta emaitzak jasotzen ditu txosten honek. Ikerketak Soziolinguistika Klusterrak gidatutako bi proiektu izan ditu aurrekaritzat: 2023an argitaratutako ***1950-1970eko etorkinen integrazio soziolinguistikoa Altzan*** lana eta 2024an egindako ***Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan*** proiektua.

Donostia Ekialdeko Barrutiko gizarte eragileek eta Donostiako Udalak gaur egungo immigrazio eta harrera prozesuen inguruko ezagutza zientifikoan sakontzeko interesa partekatzen dute. Barrutia hiru auzok osatzen dute: Intxaurrondok, Altzak eta Bidebietak. Auzo horiek asko hazi dira azken hamarkadetan hainbat fenomenoren ondorioz eta tartean migrazioa dago. Gorago aipatutako lehen ikerketak azpimarratu duenez, migrazioaren lehen olatua, batez ere, Espainiar Estatutik iritsitako langileriak osatu zuen bigarren industrializazioan (Uranga, Basurto eta Laita, 2023). Bigarren olatua, berriz, eta bigarren ikerketak aipatu bezala, mundu mailako lekualdaketek ekarri dute (Uranga, Basurto eta Eguiguren, 2024), bestelako arrazoi politiko eta ekonomikoek eraginda. Bi olatu horien ondorio gisa, gaur egun populazioaren osaerari begira Vertovec-ek izendaturiko egoera 'superdibertsoa' bizi da (Vertovec, 2019).

Aurrekariak kontuan harturik, ikerketa honek ez die begiratzen espainiar estatuan jatorria duten bizilagunei ezta gaztelania jatorrizko herrialdetik ekarriz heldutakoei ere. Aldiz, Donostia Ekialdeko Barrutian nazioarteko migrazio talde handienak osatzen dituztenetan jartzen du arreta (horiek Maroko, Aljeria, Errumania, Ukraina eta Pakistan direlarik). Ikerketaren helburua da ezagutzea eta ulertzea bertatik iritsitakoen migrazio prozesua eta baita auzo hauetan izan duten integrazio soziolinguistikoa.

Esan bezala, txosten honen bitartez ikerketa honen ibilbidea eta emaitzak aurkezten dira. Horretarako, sarrera honen ondoren bigarren atalak testuinguru edo marko teorikoa azalduko du; ostean, hirugarrenak, metodologiari eutsiko dio; laugarrenak emaitzak aurkeztuko ditu; azkenik, bostgarrenak, ondorio orokorrak eztabaidatuko ditu.

2 HELBURUAK ETA IKERKETA GALDERAK

Honakoak dira proiektu honen bi helburu nagusiak:

- Jatorriko herrialdean gaztelaniarik ez duten Altza, Intxaurrondo eta Bidebietako bizilagun immigranteek euren **testuinguru soziolinguistikoarekiko duten harremana ezagutzea**: bizipenak eta iritziak jasotzea.
- Herritar immigrante horiek **euskararen egoerarekiko** eta bere biziberritze ahaleginekiko dituzten **bizipenak eta iritziak** ezagutzea.
- **Bertako jatorriko bizilagunek** integrazio soziolinguistiko horren inguruan **duten hautematea** jasotzea

Honakoak dira, beraz, proiektu honetarako ezarritako ikerketa galderak:

- **Nolakoak dira ikertutako pertsonen esperientziak migrazioari eta integrazioari dagokienez?**
    - **Zein bizipen eta uste dituzte bizilagun horiek euskararekiko?**
- **Zein da bertoko jatorrikoek immigranteen integrazioaz duten ikuspegia eta horrekiko jarrera?**
    - **Eta espreski integrazio soziolinguistikoari dagokionez, zein dira ikuspegiak eta jarrerak?**

3 OINARRI TEORIKOA

Atal honetan ikerketa proiektuaren gaiari eusteko behar izan den marko teorikoa azalduko da, lehenik eta behin migrazioaren eta integrazioaren inguruko ideia batzuk argituz, ondoren integrazio sozialaren piramidea aurkeztuz eta, azkenik, integrazio soziolinguistikoari erreparatuz.

3.1 MIGRAZIOA

Migrazioa nabarmenki ezberdinduak dituen jatorri (emigrazio) eta helmuga (immigrazio) puntuak dituen eta iraupen ertain-luzetik mugagabera duen pertsona mugimendua da (Gutiérrez Silva et al., 2020; Moreno Márquez eta Aierdi Urraza, 2015). Izan daiteke taldekakoa eta izan daiteke bakarkakoa, izan daiteke estatu baten baitan gertatutakoa edota nazioartekoa, eta beharraren eta borondatearen arteko continuumean kokatzen da kasu bakoitzaren azalpena (Gómez Walteros, 2010). Arrazoiak askotarikoak izan daitezke, baina estatistikek erakusten dute migrazio prozesu gehienak lan-munduari lotutakoak izan ohi direla, nahiz eta arriskuak bideratutako desplazamenduak (arrisku ekologiko edota belikoak, esaterako) ere azken aldian oso nabariak diren (Migraziorako Nazioarteko Erakundea [MNE], 2024).

Atal honen arestian aipatu beharreko beste ideia nagusi bat da honakoa: pertsona askok eta askok bizi izan dituzte migrazio prozesuak, baina 2020an munduko biztanleriaren % 3,6 a izan zen nazioarteko immigrantea [MNE, 2024]). Hori horrela izanik ere, arreta handia jasotzen duen fenomeno soziopolitikoa bihurtu da gaur egun (ikus, esaterako, jatorri ezberdineko migrazioen azterketa egiten duten honako ikerketak: Paredes García [2020], Șuiu [2019], Reher eta Requena [2009], Viruela Martínez [2007]; baita ikerketa instituzionalak ere: Eusko Jaurlaritza [2018], Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea [2024], MNE [2024]). Gizartean gai garrantzitsua izatearen arrazoietako bat da migrazioaren gaia estrategia diskurtsibo-politikoen menpeko bihurtu izana. Erabilera horren kontrako diskurtsoa eraikitzeko bidean, autore askok defendatzen dute gizakia hasieratik immigrantea izan denaren ideia (Gutiérrez Silva et al., 2020; MNE, 2024), leku batean finkatzea ondoren etorri den fenomenoa dela gogoraraziz eta hori, gainera, ez dela ez homogeneoa ez sinkronikoa izan azpimarratuz.

Aurrekoarekin loturik, gaur egungo migrazioaren inguruko teorizazioek pertsona immigranteengan jartzen dute prozesuaren hasiera puntua, baina migrazio prozesuak patroi batzuen baitan gertatu ohi dira eta, ondorioz, patroi horiek harrera gizartearen behar bat ere islatzen dute. Sarreran esan bezala, egoera superdibertsoak dakartzan migrazioak geopolitikan eta kapitalismo globalean du jatorria; Micolta León (2005) edota Moreno Márquez eta Aierdi Urrazaren (2015) hitzetan, estatuek beren estatus erlatiboa mantentzeko migrazio patroiak eragiten dituzte gaur egun:

> *Teoria honentzat, nazioarteko migrazioa ez da oinarritzen eskaeran, baizik eta kapitalismoak lurralde ez-garatuetan sortzen dituen desoreketan. Ikus daitekeenez, ikuspegi hau enbor edo ikuspegi historiko-estrukturalean kokatzen da. Migrazioa-lurralde garatuek lurralde periferikoen gainean egindako menderatzearen beste ondorio bat da, eta desoreketan oinarritzen da; baina teoria neoklasikoak ez bezala, hauen ustez, migrazioak oreka bultzatu beharrean desberdintasunak handitzen ditu. Ikusten den bezala, garapenaren teoria bezala, jatorri marxista duen ikuspuntua da. Alde batetik, lurralde ez-garatuen deskapitalizazioa gertatzen da, eta, bestetik, eskulan merkea lortzen da, lurralde aberatsetan mozkin handiak mantenduz, nolabaiteko langile atzerritarren esplotazioaren bidez.*
>
> *(Moreno Márquez eta Aierdi Urraza, 2015, 40. orr)*

Hainbat ikerlarik adierazi bezala, esandakoa bi prozesu politiko-ekonomikoren artikulazioarekin loturik dago. Halperin-ek (2023) edota Tekınırk-ek (2020) azaldu bezala, segurtasun falta ekonomikoa eta ondorioz gertatutako migrazio mugimenduak diskurtso xenofoboen indartzea ari dira ekartzen, hau da, geroz eta *gu* eta *haiek* polarizatuago bat sortzen dihardute, egiturazko injustizia sozialen erantzukizuna kanpotik iritsitakoengan jarriz. Ondorioz, esan dezakegu ekonomiak eta politikak parez pare jartzen dituztela migrazioaren bi aurpegi: alde batetik, ekonomiatik eragindako beharra eta, bestetik, politikatik sortutako ate-ixtea.

Gómez Walteros (2010) ikerlariak adierazten du asko direla migrazioaren inguruko teorizazioak, baina horiek migrazio prozesuen arrazoiei begiratzen diela batez ere eta, ondorioz, ez horrenbeste ondorengo bilakaera eta efektuei. Ikerketa honek prozesuaren bi faseetan jarriko du fokua, baina, batez ere, bigarrenean, begirada horretatik integrazio prozesuak nola gertatzen diren ulertzeko helburuarekin.

3.2 INTEGRAZIOA

Migrazioarekin estuki lotutako zenbait kontzeptu nola ulertzen ditugun argi adieraztea garrantzitsua da. Klarenbeek-ek (2021) adierazi legez:

> *Kontzeptu hauek —integrazioa, asimilazioa, inkorporazioa, akulturazioa eta multikulturalismoa, besteak beste— modu desberdinean erabiltzen dira tradizio teoriko, ikerketa-testuinguru eta diziplina akademikoen arabera. Horregatik, ezinbestekoa da bakoitzak kontzeptu horiei ematen dien definizioa argi adieraztea, gaizki-ulertuak saihesteko.*
>
> *(Klarenbeek, 2021, 904. orr).*[1]

[1] Jatorrizko testua: "concepts like integration, assimilation, incorporation, acculturation, and multiculturalism are used differently throughout various theoretical traditions, research contexts, and academic disciplines. Being explicit about one's definition is therefore essential to avoid misunderstandings."

Beraz, *integrazioa* baliatzeko argi utzi behar da nola ulertzen den testuinguru honetan, ez baita arazorik gabeko terminoa. Kultur artekotasuna ardatzetako bat duten talde sozialen arteko harremanak askotarikoak izan daitezke, banaketa ohikoena hau izanik (Berry-ren [2002] lanetan oinarritutakoa eta hainbat autorek erabilitakoa):

Kultur arteko harremanak	*Taldeen arteko harremanak bultzatzen dira*	*Ez dira taldeen arteko harremanak bultzatzen*
Talde guztien nortasuna bermatzen da	**Integrazioa**	**Banantzea**
Ez da talde guztien nortasuna bermatzen	**Asimilazioa**	**Marjinazioa**

1. taula: kultur arteko harremanak

Taulan adierazi bezala, proiektu honetan integrazioa ulertzen da taldeen arteko harremanak bultzatu eta talde bakoitzaren nortasuna bermatzen duen kultur arteko harremana bezala. Harreman horri xeheago begiratzea ere komenigarria da:

> *Integrazioa elkarrekiko egokitzapen-prozesu gisa ulertuko litzateke, etorkin-populazioaren eta bertako populazioaren artean gertatzen dena. Prozesu horren bidez, bi populazioek errealitate sozialaren eraikuntza intersubjektiboa egiten dute, eta horrek balio batzuk partekatzera eramaten ditu (…) Integrazioa, hortaz, bi norabideko prozesua da, etengabe berregiten eta berritzen ari dena.*
>
> *(Moreno-Fernández, 2009, 131-132. orr)*[2]

Dena dela, gaur egun gailentzen den harreman mota ez da hori:

> *Estatu bakoitzak bere politikak ditu eta gehienen oinarrian dagoen araua etorkinen aldeko politikek bertakoen erosotasuna zalantzan ez jartzea da. Ondorioz, asimilazioaren integrazio eredua zabaldu da, hau da, etorkina integratzen da gu moduan bizi denean, (…), asimilatzen dugunean.*
>
> *(Aurrekoetxea eta Vázquez, 2020, 101. orr)*

Badago integrazioa eta asimilazioa sinonimotzat jotzen duenik eta horri erreferentzia egiteko *inklusioa* erabiltzen duenik. Horrexegatik da beharrezkoa garbi uztea zer den integrazioa kasu honetan.

Beste autore batzuen lanean ere (adib., Scandroglio, López Martínez eta San José Sebastián, 2008; García Vázquez, 2008), Paredes Garcíak (2020) ohartarazi bezala, taula hori interpretatu egin behar da kasu bakoitzean eta baliteke taulatik kanpo dauden gertakariak ere jazotzea. Adibidez, kasu askotan harrera gizarteak eta talde

[2] Jatorrizko testua: "la integración sería un proceso de ajuste mutuo, por parte de una población inmigrante y de una población residente, que permite la construcción intersubjetiva de la realidad social de ambas poblaciones y que las lleva a compartir unos valores (…) la integración es un proceso bidireccional, de continua reproducción y renovación"

migratuak bilatzen duten harreman mota ez da berbera izaten, eta badago ezaugarri indibidualak talde-ezaugarrien gainetik jartzen dituenik ere. Gainera, talka horiek ez dira parekotasunez gertatzen, harrera gizartearen nahiek pisu gehiago izan ohi baitute talde migratuenek baino.

Sistema politiko-ekonomikoan taldeen interdependentzia ukaezina izan arren, interdependentzia hori ez da beti islatu edota aitortzen jarrera indibidual orotan eta diskurtso hegemonikoan. Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, aztertu duenez,

> *lehen onartezinak ziren diskriminazio-adierazpen batzuk maiz entzuten dira gaur egun (...) Hizkuntza funtsezko elementua da, "pentsamendua osatzen duen organo" gisa jokatzen duena, eta, beraz, errealitateak egituratzen dituena. (...) migrazioaren gaurkotasuna deskribatzeko erabiltzen diren hitzek migratzaileak kriminalizatzen eta haien aurrean prebentziozko diskurtsoa sortzen laguntzen [dute]. Ikertutako informazioen erdiek ez dute "pertsona" hitza aipatzen migratzaileei buruz hitz egiteko, eta informazioen % 6,4k "ilegaltzat" jo zituen. (...) Bestalde, immigrazioarekin lotutako gertaerak kontatzeko irudi batzuk gehiegi erabiltzeak estereotipoak eta aurreiritziak bultzatu ditzake. (...) [albisteen] % 80k baino gehiagok ez diotela biztanleria migratzaileari kontsultarik egiten iturri gisa. (...) Irudikapen horren bidez, komunikabide jeneralistetan dauden estrategia diskurtsibo deshumanizatzaile nagusiak identifikatu ahal izan dira. Era berean, komunikabide horiek imajinario kolektiboan ideiak eraikitzeko eta finkatzeko duten gaitasuna islatzen da, bai eta migrazioek estaldura horretan duten protagonismo zabalak gizartean oro har eta migratzaileen bizitzan bereziki izan dezakeen eragina ere.*
>
> *(Ikuspegi: Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2025, 13. orr)*

Ikuspegiren txosten horretako, gainera, sare sozialetako azterketa ere egin da, eta azpimarragarriak dirudite honako datu hauek:

> *2025eko lehen hiruhilekoan, 171.273 gorrotozko diskurtsoren berri eman zen aztertutako sare sozial guztietan, eta zabaldutakoen % 34 erretiratu egin ziren. Eduki horiek bereziki Afrika iparraldeko pertsonen (% 74) eta musulmanen (% 17) aurka zuzendu ziren, eta deshumanizazioa eta degradazioa izan zuten ezaugarri nagusi; gainera, mehatxutzat hartu ziren eta atzerritar jatorriko pertsonak kanporatzera bultzatu zituzten.*
>
> *(Ikuspegi: Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2025, 14. orr)*

Ikus daiteke, beraz, integrazioa ez dela prozesu lineala eta ez dela berdin gertatzen testuinguru guzietan ezta jatorri guztietako pertsonekin ere. Proiektu honek, beraz, kultur arteko harremanean eta horretan hizkuntzak duen rolean jarriko du fokua gertatzen dena xehetasunez adierazteko helburuarekin, baina betiere oinarrian den interdependentzia ukatu gabe. Horretarako, eta aipaturiko aurrekari izan diren

proiektuekin bat eginez, Moreno Fernández (2009) soziologoaren markoari erreparatuko zaio integrazioaren gaian sakontzeko.

3.2.1 Integrazio soziolinguistikoa

Hizkuntza, beste gauzen artean, gizartea integraziora edo banaketara gidatu dezakeen tresna da (Bourdieu, 1991; Blommaert eta Verschueren, 1998). Beraz, laneko edo hezkuntzako integrazioan, integrazio sozialean eta identitate integrazioan eragin handia du, bai ikuspuntu instrumentaletik bai perspektiba sozialagotik. Honek garrantzia berezia du Euskal Herrian, egoera soziolinguistikoa nagusiki elebitasun ofizialean oinarritzen delako, baina hizkuntza gutxituaren hiztunek nortasunaren eraikuntzan hizkuntzari garrantzi handia ematen diotelako. Gainera, elebitasun egoerari gehitzen zaio subjektu bakoitzaren errepertorio linguistikoa. Baina, hizkuntza aniztasunak ez ditu parekotasun harremanak eraikitzen, hizkuntza eta aldaera denei ez baitzaie prestigio bera aitortzen toki eta testuinguru guztietan (Bourdieu, 1991).

Ondorioz, pertsonengan eragin zuzen handia duen prozesua da integrazio soziolinguistikoa eta hainbat ikuspuntu eta diziplinatatik landu izan da:


> *Akulturazioaren teoriak, zein Berryk (1997, 2001, 2005) proposatu eta ondoren Bourhisek eta bestek (1997) zabaldu zuten, prozesuaren izaera bi norabidekoa dela dio, eta populazio-taldeek zein norbanakoek beren identitate-ezaugarriak mantentzeko edo harrera-gizartearekin harremanak ezartzeko duten nahi eta ahalmenaren arabera har ditzaketen estrategiak aztertzen ditu.*
>
> *Bestalde, identitate sozialaren eta auto kategorizazioaren teoriak, Tajfelek (1974, 1978, 1981) eta Turnerrek (1982) planteatutakoak, dio norbanako baten identitatea talde-kidetasuneko harremanek eta beste norbanakoekin dituen harreman interpertsonalek elkarrekin definitzen dutela eta, gainera, norbanakoak egoera desberdinen aurrean identitate anitzak nola gara ditzakeen azaltzen saiatzen da.*
>
> *Gainera, Bourhis eta Gilesen (1977) komunikazio-egokitzapenaren teoriak aurrez aurreko komunikazio-egoeretan gertatzen diren konbergentzia- eta dibergentzia-prozesuak azaltzen ditu (…).*
>
> *Azkenik, integrazio-prozesuaren garapenari dagokionez, baliagarria da Moreno Fernándezen (2009) eredu piramidala, eredu horrek integrazioa prozesu mailakatu, dinamiko eta neurgarri gisa interpretatzen baitu. Prozesu horretan, integrazio soziala eta integrazio soziolinguistikoa paraleloan doaz eta hainbat fase zeharkatzen dituzte; fase horietan, hizkuntza-maila eta komunikazio-maila era anitzetan garatzen dira.*
>
> *(Paredes García, 2020, 45. orr)*[3]

[3] Jatorrizko testua: "las teorías de la aculturación, propugnadas por Berry (1997, 2001, 2005) y ampliadas posteriormente por Bourhis y otros (1997), que consideran el carácter bidireccional del proceso y toman en cuenta las estrategias que los grupos poblacionales y los individuos pueden adoptar en función de sus deseos de preservar sus rasgos identitarios o

Ikerketa honetan azken eredu hori, piramidearena, jarraitu da.

3.2.2 Integrazio sozial eta soziolinguistikoaren piramidea

Goiko aipuan adierazi bezala, Moreno Fernández soziologoak *Integrazio sozialaren piramidea* proposatu zuen integrazio prozesuen xehetasunei erreparatzeko. Egilearen hitzetan, integrazio soziala denboran zehar garatzen den prozesua da, ez egoera finkoa. Hori horrela, integrazioa ulertzeko esperientzian edota pertzepzioetan oinarritutako markoa osatzen du piramideak (Moreno Fernández, 2009). Hau da piramideak hartzen duen itxura (Moreno Fernández, 2009, 133. orr):



1. irudia: integrazio prozesuaren piramidea

Teoria horren arabera, integrazio soziala maila desberdinetan garatu daiteke, ondorengo fasea betetzeko aurrekoa osatuta egon behar da eta integrazio prozesua bere osotasunean 3. mailaraino heltzeak bermatuko luke. Garbi dago horrelako prozesuak ez ohi direla linealak izan; dena dela, hemen horrela aurkeztu dira azalpena argigarria izan dadin. Gogoratu, gainera, fase horiek burutzeak ez duela

relacionarse con la sociedad receptora; las teorías de la identidad social y de la autocategorización del yo, planteadas por Tajfel (1974, 1978, 1981) y Turner (1982), que consideran que la identidad de un individuo se define conjuntamente por sus relaciones de pertenencia a un grupo y por las relaciones interpersonales con otros individuos y, por otro lado, intentan explicar el hecho de que un mismo individuo pueda desarrollar identidades diversas ante las situaciones; la teoría de la acomodación comunicativa, de Bourhis y Giles (1977), que explican los procesos de convergencia o divergencia que tienen lugar en las situaciones de comunicación cara a cara; los aportes de los estudios sobre las lenguas en contacto, especialmente las que se refieren a los procesos de creación de interlengua e interdialecto. En cuanto al desarrollo del proceso de integración, resulta explicativo el modelo piramidal, de Moreno Fernández (2009), que interpreta la integración como un proceso gradual, dinámico y mensurable, en el que integración social e integración sociolingüística van en paralelo y atraviesan diferentes fases, en las cuales se ven afectados en diverso grado el plano lingüístico y el comunicativo."

immigranteen prozesua adierazten soilik, harrera gizartearen jarrerak eta bermeak ere biltzen dituela.

0. maila: biziraupenerako integrazioa

Harrera-gizartera edota xede lurraldera heltzerakoan migratzaileek bizi duten egoerari egiten dio erreferentzia integrazio-maila horrek. Aurreikus daitekeen bezala, fase hori migratzaileek dituzten baliabide ekonomiko, sozial eta humanoek baldintzatzen dute; batzuen kasuan denbora luzea pasa daiteke maila hori osatzerako eta, beste batzuetan, behar horiek aseta daude iritsieratik. Beraz, biziraupeneko integrazioa oinarrizko beharrak asetzeko gaitasunaren araberakoa da: bizilekua, eguneroko elikagaia lortzea, lege-baldintzak…

Hizkuntza-gaitasunei dagokienez, maila horretan enuntziatu sinpleak eraikitzeko gai izatea eta ahoskeran, gramatikan, lexikoan eta pragmatikan muga handiak izateaz ari gara. Komunikazio-gaitasunei dagokienez, berehalako beharrekin lotutako oinarrizko hartu-emanak edukitzeko gai izatea esan nahi du, informazioa eman eta eskatzeko, egoerak deskribatzeko, nahiak eta sentimenduak adierazteko... Azkenik, pertzepzio soziokulturalari dagokionez, maila horretan harrera gizarteko gizarte- eta kultura-ereduen identifikazioa mugatua da.

1. maila: integrazio laborala edota akademikoa

Migrazioaren teoriak jatorrizko herrialdeetako merkatuen funtzionamendu eskasean ditu lekualdaketak gertatzearen arrazoiak, hau da, iritzi dio lan-merkatu hobearen bila jartzen dela abian migrazio-prozesua. Ondorioz, ulertzen da norbanako edo familia hori emigrazioaren ondorio positiboen zuzeneko onuradun bihurtzen dela eta harrera gizartean funtzio sozial bat betetzen duela. Maila horretan, migratzaileak aurreko faseko beharrak ase dituela esan nahi du, hots, bizirauteko integrazio-fasea gaindituta duela.

Hizkuntza-gaitasunei dagokienez, maila horretan egoteak esan nahi du enuntziatuak modu egokian eraikitzea eta ahoskera, gramatika eta pragmatika pixkanaka hobetzea, baita hiztegi zehatz edota teknikoa erabiltzen hastea. Komunikazio-gaitasunei dagokienez, laneko edota eskolako gizarte-harremanetan parte hartzea esan nahi du, lan- edo hezkuntza-ingurunearekin lotutako ahozko eta idatzizko testuekin moldatuz eta gizarte-harremanak modu mugatuan izanez; iritziak, jarrerak, ezagutzak edota gustuak adieraztea diskurtsoa oinarrizko eran egituratuz. Pertzepzio soziokulturalari dagokionez, maila horretan harrera komunitateko erreferente sozial eta kulturaletara ohitzen hastea dago. Azkenik, ikasketa-prozesu horren kontzientzia-hartzeak ere osatzen du maila hori.

2. maila: integrazio soziala

Bigarren maila garatu dadin, interakzio sozialak aktibatu behar dira halabeharrez, horien intentsitateak eragin zuzena baitu etorkinen gizarteratze-prozesuan. Kasu honetan, denboran aurrera joan ahala gertatzen den integrazioaz ari gara, eta norbanako edo taldekide modura harrera gizartean parte hartzearekin du lotura. Aztergai dena da etorkinen eta harrera-taldeko biztanleen artean zer-nolako harreman sozialak gertatzen diren, hots, bertan zer-nolako bizitza soziala gertatzen den.

Hizkuntza-gaitasunei dagokienez, maila horretan egoteak esan nahi du enuntziatuak modu egokian eraikitzea eta ahoskera, gramatika, pragmatika eta konnotazioen ezagutza egokia izatea. Komunikazio-gaitasunei dagokienez, komunitateko talde desberdinetako gizarte-interakzioetan parte hartzea esan nahi du, komunitate-ingurune osoarekin lotutako ahozko eta idatzizko testuekin moldatuz eta egoera soziokultural konplexuetan jardunez; nahiak, iritziak, jarrerak eta ezagutzak adieraztea diskurtsoa testuinguruari egokituta egituratuz. Pertzepzio soziokulturalari dagokionez, maila horretan bitartekari kultural gisa jarduteko estrategiak izatea esan nahi du. Azkenik, eta beste behin, ikasketa-prozesu horren kontzientzia-hartzeak ere osatzen du maila hori.

3. maila: identitatearen integrazioa

Azken maila horrek harreman sozial konplexuak sortzen ditu etorkinen eta bertako komunitateko kideen artean. Prozesuaren garapenean migratzaileak bere nortasuna sortzen du, bere lekua egiten du harrera-gizartean. Halere, nortasun hori garatzeak ez du esan nahi etorkin guztiek identitate berdina garatzen dutenik, egoiliar guztiek identitate berbera ez duten moduan. Esate baterako, migratzaileek oso ezaugarri desberdineko identitate-integrazioa gara dezakete egoiliar bihurturik, adibidez, jatorrikoarekiko harremanak gordetzen, aldatzen edo alboratzen dituztenaren arabera.

Hizkuntza-gaitasunei dagokienez, maila horretan egoteak esan nahi du hizkuntza harrerako hiztun-komunitatearen arauaren araberako zuzentasunez erabiltzea, estilo eta erregistro soziolinguistikoak menperatuz. Komunikazio-gaitasunei dagokienez, komunitateko talde desberdinetako gizarte-interakzioetan parte hartzea esan nahi du, komunitate-ingurune osoarekin lotutako ahozko eta idatzizko testuekin moldatuz eta egoera soziokultural konplexuetan jardunez; nahiak, iritziak, jarrerak eta ezagutzak adieraztea diskurtsoa testuinguruari egokituta egituratuz. Pertzepzio soziokulturalari dagokionez, maila horretan kultura-aniztasuna aberastasun-iturri gisa onartzea esan nahi du, harrerako gizarte eta kulturaren balorazio positiboa eginez, harrerako kulturako jarrera eta faktore afektiboen kontrol kontzientea edukiz eta harrerako erreferente kulturalak jatorrizko erreferenteekin uztartuz. Azkenik, ikasketa-prozesu horren kudeaketa autonomoak ere osatzen du maila hori.

4 TESTUINGURU SOZIODEMOGRAFIKOA

Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoen gaur egungo izaera eta ezaugarriak ulertzeko, azken hamarkadatan izandako bilakaera kontuan hartzea interesgarria da. 1960 eta 1980 urteen artean Espainiar Estatuko lurraldeetatik jasotako biztanleriaren fenomenoa eta horren integrazio soziolinguistikoa, esaterako, funtsezko jakingaia da (Uranga eta al., 2023). Azken urteetan, Donostiako hiri-ereduan gertatutako eraldaketek (eredu ekonomikoari eta turismoari lotutakoak, esaterako) edo mundu mailako migrazio fluxuen bilakaerak ere auzo horiek gaur direnari forma eman dioten faktoreak dira.

Altza, Bidebieta eta Intxaurrondo auzoen ezaugarri demografiko ekonomiko eta soziolinguistikoak ulertzeko zenbait datu kontuan hartzea komeni da. Honako taulan dago adierazle batzuen bidez osatutako ikuspegi orokorra:

1. Taula: Donostiako eta Ekialdeko barrutiko oinarrizko adierazle demografiko, ekonomiko eta soziolinguistikoak[4]

Aldagaia		Donostia	Ekialdeko Barrutia	Altza	Mirakruz-Bidebieta	Intxaurrondo
Biztanleria guztira, 2025		183.388	44.248	20.174	8.640	15.434
Emakumeak (%)		52,8	51,2	51,3	52,1	50,6
Gizonak / emakumeak ratioa		0,894	0,952	0,949	0,918	0,976
Biztanleria adinaren arabera (%)	**0-19 urte**	15,9	15,5	16,7	15,8	13,8
	20-64 urte	57,5	60,2	58,3	58,6	63,6
	65 urte eta gehiago	26,6	24,2	24,9	25,5	22,6
Atzerritar nazionalitatea duten biztanleak (%)		9,9	11,6	11,5	11,4	11,8
Errenta erabilgarri pertsonala, batez beste (€), 2023		25.286	19.481	18.371	20.490	20.367
Errenta erabilgarri familiarra, batez beste (€), 2023		50.892	39.831	37.179	41.403	42.417
Euskaldunak (%), 2021		46,7	39,7	37,0	39,0	43,7

Donostiako Udalaren datu estatistikoen arabera, honakoa da Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoen biztanle atzerritar erroldatuen kopurua:

[4] Oharra: Datuen iturria: EUSTAT. Demografia eta nazionalitateari buruzko datuetan, atzerritar nazionalitatearen ehunekoa Eustatek bereiz ematen dituen "UE-27" eta "gainerako atzerriko nazionalitateak" batuta kalkulatu da. Euskararen ezagutzari buruzko datuetan, Donostiako datu orokorra 2 urtetik gorako biztanleriari dagokio, eta auzokakoa 5 urtetik gorako euskaldunei. Ekialdeko Barrutia zutabea ez dator iturrietan lerro bakar gisa: egileek kalkulatua Altza, Mirakruz-Bidebieta eta Intxaurrondo batuz.

2. Taula: Donostiako eta Ekialdeko barrutiko bizilagunen nazionalitateak

Estatua	Donostia	Ekialdeko barrutia	Altza	Mirakruz-Bidebieta	Intxaurrondo
Espainia	164.594	39.125	17.749	7.665	13.711
Honduras*	2.453	764	379	154	231
Maroko	1.258	731	305	56	370
Kolonbia*	1.678	527	247	113	167
Nikaragua*	1.892	453	258	102	93
Europako besteak	2.590	412	138	117	157
Hego Amerikako besteak*	1.595	356	176	80	100
Errumania	463	199	83	40	76
Ukraina	764	193	103	49	41
Aljeria	322	178	40	9	129
Pakistan	306	150	126	9	15
Afrikako besteak	349	144	58	24	62
Venezuela*	480	129	53	33	43
Ertamerika eta Karibeko besteak*	389	87	35	19	33
Portugal	324	87	87	0	0
Italia	973	83	0	37	46
Asiako besteak	532	73	16	20	37
Txina	506	50	18	20	12
Paraguai*	175	46	46	0	0
Senegal	124	46	33	0	13
Mongolia	271	34	0	13	21
Brasil	323	29	0	0	29
Mexiko*	272	29	9	6	14
Kuba*	209	28	0	12	16
Peru*	379	26	0	26	0
Dominikar Errepublika*	183	26	26	0	0
Nepal	70	16	16	0	0
Amerikako Estatu Batuak	369	14	0	5	9
Nigeria	45	5	0	5	0

*Ikerketa honetatik kanpo utzi dira jatorrizko herrialdean gaztelania hizkuntza ofizialtzat duten herrialdeetatik heldutako pertsonak, Kokapena atalean azaldu bezala.

5 METODOLOGIA

Atal honetan azalduko da zein pausu jarraitu diren ikerketa honetan, horren inguruko hausnarketa eginez eta prozesuaren zehaztasunekin lotuz.

5.1 IKERKETA KUALITATIBOA

Ikerketa honetan metodologia kualitatiboa erabili da parte-hartzaileen pertzepzioak eta arrazoiak modu sakonean aztertzeko (Mayan 2009; Mason, 2002; Heller, Pietikäinen eta Pujolar, 2018).

> *Metodologia kualitatiboa honako kasuetan erabiltzen da nagusiki: gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko (...); gai zehatz baten inguruan pertsonek eduki ditzaketen esperientziak, bizipenak eta pertzepzioak sakontasunez ezagutzeko; gai baten konponbidea bilatzeko garaian, proposamen eta ideia ezberdinak jasotzeko, hau da, ekarpenak, irtenbideak edota egitasmoak irudikatzen hasteko; gertakari edo gai baten garapenean (eboluzioan) sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko, sormen-lana bultzatzeko eta taldekako hausnarketa sustatzeko.*
>
> *(Hernández García, 2010, 294-295. orr)*

Beraz, ikerketa kualitatiboa izanik, lan honek ulermena eta interpretazioa ditu helburu nagusi. Horretarako, elkarrizketak baliatu ditu datuak bildu eta sortzeko. Elkarrizketek informazio sakona eskaini dezakete immigrazioaren inguruko lanaren helburuak betetzeko, eta horrela egin izan da beste ikerketa batzuetan, esaten baterako proiektu honen aurrekarietan (Uranga et al., 2022 eta 2024) edota Madrilen egindako beste batean:

> *Elkarrizketa erdi-zuzendua, bizitza-kontakizun moduan egituratua, eta helburua da elkarrizketatuak migrazio-prozesuari buruz dituen sentsazioak eta iritziak adieraztea, jatorrizko lekutik abiatu eta gaur egungo egoerara iritsi arteko ibilbidea kontuan hartuta. Elkarrizketa honetan, hizkuntzak bizi-ibilbide horretan izan duen eraginari garrantzi berezia ematen zaio.*
>
> *(Paredes García, 2020, 60. orr)*[5]

[5] Jatorrizko testua: "Una entrevista semidirigida, que se estructura en forma de relato de vida y va orientada a que el entrevistado pueda expresar sus sensaciones y opiniones acerca del proceso migratorio, desde su lugar de origen hasta su situación actual. En esta entrevista se le concede un peso muy importante a la influencia de la lengua en ese periplo vital."

5.2 ELKARRIZKETAK PRAKTIKA SOZIAL GISA

Goian aipa legez, txosten honetarako datu bilketa elkarrizketen bidez burutu da. Elkarrizketa

> *bi subjekturen arteko (...) interakzioa da, bata ikertzailea eta bestea elkarrizketatua. Oinarrian komunikazio-egoera bat da eta emaitza positiboak lortzeko komunikaziorako bideak, eta estrategiak zein baldintzak garatu behar dira elkarrizketari loturiko zeregin guztietan zehar.*
>
> *(Hernández García, 2010, 302.orr)*

Beraz, elkarrizketak ez dira soilik datuak jasotzeko tresna gisa ulertzen; praktika soziala ere badira (Talmy, 2010): elkarrizketan parte hartzen duten pertsonen arteko interakzioan sortzen eta negoziatzen den jarduera soziala dira. Ikuspegi horrek aukera ematen du parte-hartzaileen diskurtsoak testuinguru sozialean kokatzeko eta haien esanahia ulertzeko.

Ikuspegi horretatik, elkarrizketetan sortzen den informazioa ez da aurrez finkatutako egitateen bilduma hutsa, baizik eta elkarrizketaren garapenean bertan eraikitzen den kontakizuna. Parte-hartzaileek beren esperientziak, pertzepzioak eta posizioak azaltzen dituzte, elkarrizketatzailearekin duten harremanaren, galderen formulazioaren eta elkarrizketaren testuinguruaren arabera (Martín-Criado, 2014; Talmy, 2010). Horregatik, txosten honetan elkarrizketak datu-iturri gisa ez ezik, analisi-objektu gisa ere ulertzen dira. Honek zera esan nahi du: elkarrizketen bidez jasotako informazioa kontakizun gisa tratatu dela, hau da, parte-hartzaileek beren esperientziak eta ikuspegiak nola eraikitzen dituzten aztertu dela eta hori praktika sozialtzat jo dela (De Fina, 2020; De Fina eta Georgakopoulou, 2008).

Aurrekoarekin oso lotuta, elkarrizketak egiteko garaian, kontuan hartu da beti elkarrizketak berez harreman asimetriko bat ezartzen duela elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren artean (Talmy, 2010). Asimetria horrek eragina izan dezake gaien hautaketan, erantzunen formulazioan eta parte-hartzaileek beren burua aurkezteko moduan (Talmy, 2010). Hori horrela izanik ere, erabilitako elkarrizketak erdi-egituratuak izan dira. Horrek esan nahi du aldez aurretik zehaztutako gaiak egon direla, baina elkarrizketek malgutasuna izan dutela parte-hartzaileek beraiek garrantzitsutzat jotzen zituzten gaiak garatzeko. Antolaketa horrek aukera eman du elkarrizketa-dinamika naturalagoa sortzeko eta parte-hartzaileen diskurtsoak sakonago jasotzeko, betiere txostenaren helburuekin bat etorriz.

5.3 DATUEN ANALISIA

Datu-bilketaren fasean jasotako informazioa modu sistematizatuan antolatu da. Testigantzak, audioz jasota, transkribatu egin dira; parte-hartzaileen izenak kodetu egin dira anonimotasuna eta pribatutasuna bermatzeko, eta, maskaratutako izenak esleitu zaizkie. Behin corpusa antolatuta, aldez aurretik diseinatutako ikerketa-gai

zerrendatik abiatuta, testigantzak arakatu eta oinarrizko ideiak jaso dira analisi sakona hasi baino lehen (Bujan Vidales, 2001).

Jasotako datuak lantzeko, *Atlas.ti* ikerketa kualitatiborako tresna erabili da, baliagarria delako datu kualitatiboak antolatzeko, analisi-prozesua modu sistematizatuan egiteko eta emaitzak modu errazean gurutzatzeko. Gainera, ikerketa kualitatiboen emaitzei ziurtasun handiagoa eta zehaztasun zientifikoa ematen die.

Kasu honetan, testigantzak aztertzeko analisi tematikoa egin da 'kategoria aglutinatzaileen' sistema erabiliz (Bujan Vidales, 2001, 137. orr). Ikerketaren gai orokorretatik maila altuagoko *gaiak* eta *kategoriak* edo azpigaiak sortu dira; eta erantzunetatik ateratako ideia zehatzak maila baxuko *kodeak* bihurtu dira. Garrantzitsuak izan diren gai, kategoria eta kodeak bigarren atalera ekarritako teorizazioekin lotu dira: analisi tematikoa prozesu soziopolitiko, ekonomiko eta linguistikoekin lotu da.

Azkenik, puntu honetan berriz azpimarratu beharra dago elkarrizketa praktika sozialtzat hartu izanak ezin dituela datuak egia absolututzat jo, hau da, elkarrizketatuen erantzunak ikerketaren osotasunaren baitan interpretatu eta analizatu direla.

5.3.1 Ikerketa-oharra

Ikerketa honek 'hartutako zorraren printzipioa' (Moreno Fernández, 2009, 153. orr) du oinarrian. Printzipio horren arabera, komunitate bateko kideen datuak lortzen dituzten soziolinguistak behartuta daude ondorioztatutako ezagutza komunitatearen mesedetan erabiltzera, komunitateak hala behar duenean. Beraz, integrazio soziolinguistikoaren azterketatik lor daitekeen ezagutza komunitatearen bizikidetzarako helburu bidezkoagoak eta solidarioagoak bihurtzen lagungarri izatea du helburu, eta, kasu honetan, migrazio berrien kudeaketan gizarteratzea erraztea eta hobetzea.

6 PROZESUA

6.1 EMANDAKO URRATSAK

Diseinu orokorra

Donostiako Udala, Ekialdeko Barrutiaren Euskara Batzordea eta Soziolinguistika Klusterraren artean ikerketaren baldintzak adostu ziren. Interes guneak eta lanerako aukerak baloratuta, helburuak eta epeak finkatu ziren. Klusterrak proposamen tekniko bat egin zuen proiektua aurrera eramateko.

Lehen diseinuan, 18 elkarrizketa sakon aurrera eramateko asmoz, irizpideak finkatu ziren. Ikerketan elkarrizketatuko ziren pertsona guztiak 5 urte baino lehenago etorri izana Donostiako Ekialdeko auzoetara bizitzera eta adinez nagusi izatea. Horrez gain,

jatorria, sexua eta adinari dagokionez gutxieneko aniztasuna eta oreka bermatze aldera, nahi zen elkarrizketatuen erdia emakumezkoa eta beste erdia gizonezkoa izatea; erdia 40 urtetik beherakoa eta beste erdia 40tik gorakoa izatea; eta jatorriko herrialdean gaztelania ofiziala ez duten nazionalitatedun herritarrak izatea, Ekialdeko barrutian ohikoenak diren nazionalitateetakoak (Maroko, Errumania, Ukraina, Ukraina, Aljeria eta Pakistan).

Azterketa bibliografikoa

Antzeko ikerketa lanak irakurri eta aztergaiaren gaineko datuak bilduz jarri ziren ikerketaren oinarriak. Proiektuaren ikuspegia, marko teorikoa, landa-lanaren diseinua eta elkarrizketen gidoia (ikus 1. eranskina) egoki aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko urratsa izan zen.

Kontaktazioa

Aurreikusi baino askoz gehiago luzatu zen kontaktazio ahalegina. Proiektuan parte hartu duten eragileen harreman sareek ez zuten behar besteko eraginkortasuna erakutsi. Identifikatutako elkarrizketatu potentzialen aldetik ikerketan parte hartzeko ezintasuna edo borondate falta jaso zen, nagusiki. Honela, prozesuaren erdibidean egitasmoa birformulatzeko beharra gailendu zen.

Landa-lana

Birformulazioa gauzatu aurretik, eta kontaktazio ahaleginek zirauten bitartean, aurreikusitako profiletan sartzen ziren 3 pertsonarekin elkarrizketa sakonak eta emankorrak gauzatu ahal izan ziren.

	Kodea	Jatorria	Auzoa	Generoa	Adina
1	I01	Maroko	Intxaurrondo/Altza	Gizona	+40
2	I02	Ukraina	Altza	Emakumea	-40
3	I03	Ukraina	Altza/Bidebieta	Emakumea	+40

Birformulazioa

Kontaktaziorako zailtasunek prozesua luzarazi ostean eta, hamaika saiakera eginda ere, aurrera egiteko modurik topatu ezinda, ikerketaren planteamendua egokitzea erabaki zen. Donostiako Udalaren eta ikerlarien arteko adostasunez, auzotar etorri berrien hizkuntzekiko harremana ezagutzeko bitartekari bezala bertako jatorria duten auzotarrak hartzeko hautua egin zen. Honela, ikerketaren helburuetan eta ikerketa-galderetan egokitzapenak egin ziren, txosten honen hasieran aurkeztu bezala definitu arte. Ikerketa egingarria hobetsi zen jatorrizko planteamenduaren aurretik, jakitun izanik zenbait gauza bidean uzten zirela. Ikuspegi berriak izaera erlazionala hartu zuen, bertakoen eta kanpotik heldutakoen bizipenak elkarrekin harremanean aztertzeari heldu zitzaion.

Adostu zen elkarrizketak egitea Ekialdeko Barrutiko auzoetan sektore desberdinetan lanean diharduten pertsonei, adinaren (+/-40) eta generoaren (emakume/gizon) araberako orekak bermatuz.

Egindako birformulazioaren baitan, finkatutako helburu, galdera eta irizpide berriak kontuan hartuta, elkarrizketetako gidoia ere egokitu zen (ikus 2. eranskina).

Kontaktazioa (II)

Donostiako Udalaren eta Ekialdeko Barrutiko elkarteen harreman sareak baliagarriak izan ziren bigarren kontaktazio aldi honetan bilatzen ziren profileko elkarrizketatuen parte hartzea lortzeko. Horiez gain, zuzeneko kontaktazioa eta elkarrizketatu potentzialen ahoz ahoko identifikazioa baliatu ziren.

Landa-lana (II)

Adostutako profilekin bat egiten zuten 15 pertsona elkarrizketatu ziren landa lanean, 10 elkarrizketatan. Lagina osatzen duten guztiak dira Ekialdeko Barrutiko auzoetakoak edo, arlo desberdinetan, euren jarduera bertan gauzatzen dutenak. Horien artean, 8 emakume eta 7 gizon egon ziren, eta berrogei urtetik gorako 9 pertsona eta beherako 6.

	Kodea	Arloa	Generoa	Adina	Auzoa	Pertsona kopurua
1	B01	Hezkuntza	Emakumea	+40	Bidebieta	1
2	B02	Elkarteak + euskalgintza	Gizona	+40	Altza	1
3	B03	Kultura + administrazioa	Gizonak	+40	Intxaurrondo	2
4	B04	Administrazioa + osasuna	Emakumea	+40	Ekialdeko Barrutia	1
5	B05	Elkarteak + hezkuntza	Gizonak	+40	Altza	2
6	B06	Hezkuntza ez formala	Emakumeak	-40	Ekialdeko Barrutia	2
7	B07	Hezkuntza ez formala	Emakumea Gizona	-40	Intxaurrondo	2
8	B08	Kirola	Gizona Emakumea	-40	Intxaurrondo	2
9	B09	Merkataritza	Emakumea	+40	Bidebieta	1
10	B10	Gizarte zerbitzuak + administrazioa	Emakumea	+40	Bidebieta	1

Azterketa

Epeen kudeaketa egokiaren mesedetan, kontaktazioa, landa-lana eta azterketa modu mailakatuan baina paraleloan garatu dira.

Elkarrizketen transkripzioa egin ostean, edukien kudeaketarako Atlas.ti programa baliatu da gaiak eta azpigaiak pasarte zehatzekin lotzeko. Horiek aztertuz eta elkar

erlazionatuz lortu da aztergaiaren ikuspegi orokorra eta landu ahal izan dira ondorioak.

Emaitzen lanketa eta txostena

Azken txosten honetan, ikerketaren planteamendua eta prozesua deskribatzeaz gain, jaso dira emaitzak, ondorioak eta zenbait hausnarketa. Emaitza gisa jaso da aztergaiaren inguruko funtsezko gaien inguruan elkarrizketatuek esandakoaren lagin esanguratsu bat. Emaitza guztien irakurketa bateratua eginda, ondorioetan ikerketa galderei erantzuteko saiakera egin da. Azkenik, proiektu honen garapenean handik eta hemendik jasotakoarekin, bizi izandakoarekin eta ikusitakoarekin sortutako zenbait hausnarketa jaso dira azken atal batean, interesgarri edo aurrera begira erabilgarri izan daitezkeelakoan.

6.2 EPEAK

Epeei dagokionez, honela garatu da ikerketa denboran zehar:

	2025									2026					
	04	05	06	07	08	09	10	11	12	01	02	03	04	05	06
Diseinu orokorra															
Azterketa bibliografikoa															
Kontaktazioa															
Landa-lana															
Birformulazioa															
Kontaktazioa (II)															
Landa-lana (II)															
Azterketa															
Emaitzen lanketa eta txostena															

6.3 EGOKITZAPENAK ETA HAUTUAK

Elkarrizketak egiteko parte-hartzaileak identifikatzea eta kontaktatzea prozesu luzea eta konplexua izan da. Hasierako aurreikuspenen kontra, kontaktazio-lanak denbora eta ahalegin handia eskatu du, eta kasu askotan ez du esperotako emaitza izan. Hasiera batean, kontaktazioa Udalaren, elkarteen eta ikastetxeen bidez egitea bilatu zen. Bide horrek, ordea, ez du partaideak lortzeko aukerarik eman.

Batetik, bilatzen genituen profileko pertsonen kontaktu-datuak lortzeko (izen-abizenak, adina, generoa, telefonoa edo/eta posta elektronikoa) arazoak izan dira. Oso kontaktu-fitxa gutxi eskuratu ditugu.

Baina bestetik, pertsona askok ez dute elkarrizketetan parte hartu nahi izan. Interes falta agertu dute edo, zuzenean, ikerketa honen moduko praktika sozial batean parte hartzetik oso urrun sentitzea adierazi dute.

Egoera horrek hainbat dilema etiko planteatu ditu. Alde batetik, ikerketaren helburuen eta filosofiaren baitan, ezinbestekoa zen parte-hartzea borondatezkoa eta informatua zela bermatzea; inolako presiorik edo derrigortzerik gabekoa. Bestetik, galdera berriak ekarri ditu: zer dago pertsona horiek beren burua ikerketa honetatik kanpo ikustearen atzean? Nola jaso garrantzitsuak diren ahotsak, halako espazioetan parte hartzeko legitimitaterik sentitzen ez badute?

Horren ondorioz, ikerketa honetan ulertzen da parte ez hartzea bera datu esanguratsu bat dela, agerian uzten dituena praktika sozial batzuekiko distantzia, desberdintasun sozialak, aurretiko esperientzia negatiboak, konfiantza falta eta abar. Ondorioz, egoera horrek proiektuaren ikerketa-galderekin zuzenean konektatzen du. Labur esanda, ikerketa-prozesuak berak erakutsi du nagusiki bertako jatorriko kidez osatutako ikergune, erakunde eta elkarteek zailtasunak dituztela formaltasun maila bateko harremanak izateko gizarte sektore batzuekin eta, hori, integrazio ez burutu edo ez arrakastatsu baten parte ere izan daitekeela.

Testuinguru horretan, etika-ikuspegitik lehentasuna izan da parte-hartzaileen autonomia errespetatzea eta ez jartzea ikerketa-helburuak parte-hartzaileen ongizatearen gainetik. Horren ordez, ikerketaren diseinu berria sortu da.

Elkarrizketatuak gutxiago izan dira eta, beste proiektu batzuen antzera (ikus, esaterako, Larrea Mendizabal, 2017; Mata-Codesal eta Aramburu Otazu, 2025), immigranteez gain bertakoak ere elkarrizketatu dira. Erabaki horren helburua izan da bertakoek immigrazioaren eta integrazioaren inguruan duten ezagutza biltzea, eta immigranteen praktika eta diskurtsoen eta bertakoen praktika eta diskurtsoen arteko zubia bertakoen perspektibatik egitea. Laburbilduz, ikuspuntua zabaltzea.

Bermatu da bertakoen testigantzak arlo desberdinak barne hartuz jasotzea (administrazioa, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, kirola, elkartegintza, merkataritza eta euskalgintza).

Emaitzen atala bertakoen testigantzek ardazten dute, eta immigranteen ahotsak aurrekoak osatzeko eta batzuetan ispilu gisa jokatzeko baliatu dira.

Ikerketa honetan lortutako parte-hartze mugatua ez da ikerketaren balioa murrizten duen elementutzat hartzen, baizik eta aztertua izaten ari den errealitatearen ezaugarriak eta mugak hobeto ulertzeko aukera ematen duen faktoretzat.

7 EMAITZAK

Atal honetan bildutako informazioaren analisia egingo da. Horretarako, eta txosten osoan zehar mantendutako ikuspegiari eutsiz, Moreno Fernández (2009) soziolinguistaren lau faseen baitan erreparatuko zaie datuei, hala nola, biziraupeneko integrazioaren baitan (6.1), lan edota hezkuntza munduko integrazioarenean (6.2), integrazio sozial eta kulturalarenean (6.3) eta identitatearen integrazioan (6.4).

7.1 BIZIRAUPENERAKO INTEGRAZIOA

Iritsi berritan hasten den integrazio fasearen nolakotasuna, askotan, migratu izanaren arrazoiarekin lotuta ageri da. Era zehatzagoan esanda, Altza, Intxaurrondo eta Bidebietara heldutako asko eta askoren migratzeko arrazoia ekonomikoa dela adierazi da elkarrizketetan:

> *"Ehuneko ehuna ba bizitza hobeago baten bila." (B01)*

Hori horrela izanik eta aurreko ikerketetan ezagutu legez, migrazio ibilbideak migrazio patroi bihurtu daitezke grabitate- edota erakartze-efektuaren bitartez. Jatorri berdinekoen harreman-sareak sortzen dira helmugan eta, horrek, batzuetan, familiak sakabanatzea edo elkartzea dakar:

> *"Efecto llamada bere momentuan (...) eta orain Altzara, pues lógico, (...) pues nora pues ezagutzen duten espaziora." (B05)*
>
> *"Llegue aquí Donosti San Sebastián, directo por la familiar que tengo con la prima que vive aquí. (...) dejé a la niña a mi madre, que tenía 2 y medio, a mi marido, a mi madre, a mi padre y me arriesgué a venir aquí un añito, digo yo, 'un añito, trabajo, así ganamos algo', porque ahí era imposible." (I02)*
>
> *"Etortzen dira reagrupamiento familiar. Batzuk ekartzen dute familia." (B05)*

Inguru ezezagunak eta egoera prekario edota irregularrak eraginda, beldurra nagusi den fasea da biziraupenarena. Beldur horrek baldintzatu egin dezake immigranteek administrazio publikoarekin duten harremana, Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten ala ez eta, jotzekotan, garatzen den elkarrekintzaren izaera:

> *"Orokorrean, Gizarte Zerbitzuetako laguntza hartzen dute pixka bat beldurrarekin. Segun ze egoeratan dauden, beldurra dute, ez laguntzarik jasotzea edo daukaten laguntza kentzea edo gurasotasuna zalantzan jartzea. Arriskua ikusten dute. Ez dakit orokorrean esan daitekeen, baina gertatzen zaigu, batzuetan. Edo laguntza, ez dakit, humanitario, [anon.] laguntza lortu eta 'buf igual ez dut laguntza hau eskatuko edo ez diet ezer esango, badaezpada ere hau kentzen badidate'. Minimoaren, minimoa kentzearen beldur." (B01)*
>
> *"A veces creemos que conocemos mucho, y nos hemos sorprendido cuántas personas han venido que no conocíamos del barrio. No sé. Y nos pasó lo mismo (...) con el COVID. (...) Sí, sí, ojalá que no fuera así, pero sí, sí. (...) Y creo que también puede tener que ver con personas*

que de alguna manera se manejan, se manejan. O sea, que tienen muchas habilidades y que bueno, y que en esa precariedad, pues más o menos se manejan. O que quizá tienen un poco de red familiar... Sí. Pero también tiene mucho sentido pensar que pueda ser por miedo e." (B10)

"Yo pienso que vienen muchas veces apurados o un poquito enseñando una parte así, un poco como 'cuidado a mí no me' no sé cómo decir. Vienen muchas veces con mecanismos de defensa muy activados." (B10)

Gainera, aipagarria dirudi Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten erabiltzaileak emakumeak izan ohi direla, nahiz eta hori ere jatorriaren arabera asko aldatu daitekeen:

"Cuando diría personas, diría mujeres, que vienen o solas, o vienen, pero tienen una familia, lo que pasa es que son ellas siempre. Bueno, eso pasa en todo. Siempre en Servicios sociales se acercan las mujeres. Pueden hablar de su propia situación o de la situación de un familiar o..." (B10)

Deskribatutako egoerak sortzen duen lehenengo zailtasun handia etxebizitzarena da hainbat arrazoirengatik: prezio geroz eta altuagoak eta kaleratzeak, arrazakeria, egoera legal irregularrarekin arazoak, familien elkartze prozesuak… Eta, noski, arrazoi horietako bakoitza besteekin lotuta egon ohi da:

"Hemengo alkilerra, nahiz eta... asko igo da ere Altzan, Donostiako inguruko alokairuekin konparatuta. Eta ez daude etxeak momentu honetan, ez daude alokatzeko." (B05)

"Martutenetik bota zituztenean, eta gero orain entzun zutenean berriro Herrerakoa botako zutela." (B05)

"Etxe gabe, bai, bai, baratzetan, bai txaboletan." (B05).

"18 urterekin ya ez daukate Foru Aldundiaren babesa eta kalera doaz. Orduan (...) arazo ez dakit larriena esan, baina oso garrantzitsua dena eta zeharkatzen duena beraien prozesua da etxebizitza. Etxebizitza. Arrazakeria, racismo habitacional. Ba hori ba, mutil hauek adibidez, diru laguntza bat daukate, hasiera batean beraien prozesua hasteko, baina batzuetan ez daukate logela alokatzeko aukerarik, nahiz eta igual dirua izan alokatzeko momentu horretan." (B04)

"Asko eta asko paperik gabe, lanik gabe, batzuk lan, ezkutuko lanetan, sare gabe, eta baldin badatoz sarearekin, datoz, beraien sarea da, baita ere, etorri berria edo azkeneko urteetan etorria. Osabaren etxera, izebaren etxera. 'Osabak esan dit etxe honetan sar naitekeela', baina etxe hori izango da agian bost gelatakoa, eta gela bakoitzean familia bat. Baina bosteko familiak gela batean." (B01)

"Comparten piso. Está distribuido el piso en habitaciones." (B09)

"Siempre decimos '¿qué va a pasar? ¿qué va a pasar? Va a explotar', y no explota nunca. (...) Y los educadores que a día de hoy están en los centros de servicios sociales (...) no sabría con qué porcentaje de su jornada están en acompañamiento, en la búsqueda de vivienda o

habitación. (…) Pero en un porcentaje altísimo, buscando habitación con mucho apuro. (…) Pero ya no hablo de buscar casa, hablo de buscar habitación incluso siendo 2 o 3, o… Sí, buscando habitación y con mucha dificultad, porque a veces cuando llamas, pues, 'con niños no', eso ya pasa. Pero la procedencia también, en ese sentido, los hombres magrebíes tienen mucho más, mucha dificultad." (B10)

Hori horrela izanik, integrazioaren fase ezberdinetan aurrera egitea zaildu egiten da eta, batzuetan, beste auzo batera, beste herri batera edo beste ingurune batera desplazatu beharra gertatzen dira:

"Familia asko mugitzen dira auzotik kanpora. Eta hona datozenak da, orain arte etxebizitza pixka bat merkeago, edo harrera etxea hemen dago, edo familia hemen dute eta gero bilatzen dute toki hobeago bat, edo asilo politikoarekin datozenak beste toki berezi bat daukat hemendik gertu… Hilabete batzuetarako datoz, eta gero topatzen dute zerbait hobea. Mugitzen dira. Orduan joan-etorriak asko izan dira, asko izaten dira." (B01)

"Hasi norbaiten etxean eta gero beraien etxe propioa topatu, edo bere txoko gela, beste gela bat lortzen dute eta eskolaz aldatzen dira." (B01)

Beraz, hasierako grabitate- edo erakartze-efektuak dakarren indar zentripetuak etxebizitzara sarbidean dauden zailtasunekin topo egiten duenean, indar hori zentrifugoa bihurtu daiteke.

7.1.1 Euskara biziraupeneko integrazioan

Hizkuntza gutxituak fase honetan duen tokia garrantzirik gabekoa ikusi izan da elkarrizketetan. Beste premiazko lehentasunak asetzeko saiakeran, gutxieneko komunikazioa bermatzearekin, euskaraz ohartzeko, gerturatzeko edo ikasteko edozein keinu atzean geratzen da.

"Hizkuntza bat jakitea beti aberatsa da, eta seguru laguntzen duela, esan nahi dut, zenbait lanpostuetara, zenbait komunitateen arteko ere, ghettizazioa gertatu ez dadin… Ez daukat inolako zalantzarik. Baina zure lehentasuna baldin bada zortzi urteko semeak afaria edukitzea ostegun honetan… Seguramente ez da beraien lehentasuna. Seguramente ezin du izan." (B04)

7.2 LAN EDOTA HEZKUNTZA MUNDUKO INTEGRAZIOA

7.2.1 Lana

Moreno Fernándezen (2009) teoriak dioenez, integrazioaren faseak oso lotuta daude elkarren artean eta aurrekoaren garapena oinarrizkoa da hurrengoa burutzeko. Enplegu bat eskuratzeak biziraupen-integrazioa bukatutzat ematea ekar dezake, batzuetan azkar samar. Baina biziraupen-integrazioaren fasean bizilekuarekin edo legezko estatusarekin, adibidez, sor daitezkeen blokeoek, enplegura sarbidea asko atzeratzea eragin dezakete. Ondorioz, immigranteen lanak askotan prekarioak edota irregularrak izan daitezke, batzuetan titulazioak ez direlako konbalidatzen eta, beste batzuetan, oso urgentea delako lehenbailehen hastea lanean:

> *"Igual batzuk ezkutuko lanekin dabiltza. Bueno, iritsi berriak eta denbora daramatenak e." (B01)*
>
> *"Orokorrean, zaintza lanetan, garbiketa lanetan. Beste batzuk badituzte, etortzen dira lan profesionalak edukita, ikasketekin, eta utzi behar izaten dute. Ba ez dietelako konbalidatzen, ez du balio, edo ez dute inon horretatik lanik topatzen." (B01)*
>
> *"Mi impresión es que sí. Por la urgencia. Sí, a veces. Muchas veces te parece que conoces a una persona porque le conoces en este espacio, pero luego se da a otro espacio porque le tienes que ir a visitar a su casa, o porque en algún momento dado… Y no sé, y de repente descubres, bueno, eso pasa con todas las cosas." (B10)*

Lan-arloak, beraz, espazio erdi-segregatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, arlo segregatuek klase sozialak jatorriaren arabera garatzea ere ekar dezake:

> *"Langile sindikatua, langile sindikatuak sartu beharko lukete horretara. Azkenean, langile klasea, gaur egun daukagun langile klasea hori da, edo gehiengo potente bat. Nik ez dut ikusten inongo mugimendurik dagoenik alde horretan. Oso txikia. /[6] (…) Klaro baina sindikatuak zeinentzat ari dira lan egiten orain? Hilero kuota ordaintzeko gai garen horientzat. / (…) Bai, hor azkenean falta da klase kontzientzia bat, langileen artean ez dago klase kontzientziarik. Klaro kontzientziarik ez dagoenez ez dago klaseko borrokan, borroka ez da egiten. Orduan, hor geratzen da gizarte zati bat ba hor enpoderatu gabe, botere gabe, ezer gabe, isiltasunean." (B03)*

Bestalde, lan-arloen bereizketan generoak eta jatorriak ere pisu handia dute; batzuetan aldagai horiek elkarrekin ageri dira, beste batzuetan elkarreragin hori ez dago hain ikusgai. Arloa, gainera, erabakigarria izan daiteke auzoan eta auzotarrekin igarotako denbora definitzerako orduan: adibidez, eraikuntza lanetan daudenak auzoz auzo ibiltzen dira, zaintza lanetan daudenak auzo berean geratu ohi dira.

> *"[Emakume] asko oraindik umeen zaintzan daude" (B01)*
>
> *"Etxe asko zaharrak dira eta berritzen ari dira, ez? (…) Eta profila errumaniarrak, Errumaniatik. Hego Amerikar gazteak. Eta magrebtarrak gutxi ikusi ditut hemen Altzan, eta orain egiten ari dira e, dorreak eta. / Gizonak, bai, bai. Obretan gizonak." (B05)*
>
> *"Hor ikusten da fruteria merkatu horretan badago pakistandar sektore potente bat (…) Eta horiek auzoarekin zer harreman? Ba bueno, salerosketa tratuan daukatena. Adibidez horiek, negozio bat eramaten duten neurrian, jendearekin asko egongo dira." (B03)*

Aipatu beharrekoa da zaintza lanek, gainera, berezitasun bat daukatela: zaintza lanetan dabiltzan zenbait emakume immigrantek beraien zaintzapean zegoen beste norbait utzi dute jatorrian:

> *"Dejé la niña pequeña, unas lloreras, hablando por teléfono, me pidió 'mamá, ¿dónde estás?' (…) por teléfono y oía a los niños brincando,*

[6] Barra (/) erabili da bi pertsona elkarrizketatu dauden kasuetan hitz-hartze ezberdinak markatzeko.

> *chillando, yo qué sé, jugando. 'Quién está por ahí?' Y yo explicándole que cuido los niños. Bua." (I02)*

Jakina da egoera psikologikoak ere modu nabarmenean baldintzatu dezakeela lehentasunen hierarkia eta integraziorako faseen garapena.

7.2.1.1 Euskara lan-integrazioan

Lan-sektoreen araberako banaketak lotura handia du hizkuntzarekin. Ez bakarrik hizkuntza-eskakizunei dagokienez, hizkuntzaren jabekuntzari dagokionez ere bai. Alde batetik, eta aurreko atalean adierazi legez, lan-mundurako sarbiderako urgentzia horren oinarrian lehentasun material eta ekonomikoak daude, eta hizkuntza gutxitua behar horietatik kanpo gelditzen da:

> *"A trabajar, ya no hay tiempo. Y te entienden. 'A vale, pues ya está suficiente, no hace falta'. Pero ahora me arrepiento." (I02)*

> *"Nik uste dut errezta-, baliabideak egon, jartzen direla, esango nuke, euskaltegi eskaintza egon badagoela, baina ziurrenik, eskaintza hori pentsatuta dago gure begiradatik. Esan nahi dut (...) gure adinarekin, nork dauka gaitasuna euskaltegi batean, gela batean sartu eta ikasten hastea? (...) Batetik batzuk ez daukatela ikasketa maila edo ohitura ikasteko, bestetik, ez daukatela denbora, edo euskaltegi batzuetan gutxi, baina ordaindu behar izaten da. Eta a ver, zuk Donosti batean daukazun soldata gutxi hori, gainera etxera bidali behar baduzu dirua eta denbora, zure denbora librean, gelditzen bazaizu, igual ez daukazula ezta denbora librea, euskaltegia... pff. Ba zure lehentasunetan oso polita litzatekeela, eta askori nik uste dut gustatuko litzaiekeela, baina ez dira iristen." (B03)*

Hizkuntzaren behar erlatibotik at, testuinguru soziolinguistikoaren berri izateko tokia ere bihurtzen da lan-arloa. Etxean geratu ohi direnak, ostera, hizkuntzaren jabekuntza eta ezagutza soziolinguistiko baxuagoa izateko probabilitate handiagoa dute:

> *[Zaintza lanetan] "Y yo dije 'qué es 'bai', qué es 'ez', porque no os entiendo nada'. Yo estaba aprendiendo 'uno dos tres'. Me dice '¿dónde has llegado?' y yo digo 'a España', me dice 'el País Vasco'. Digo, '¡por favor! ¿A sí? ¡Ni idea!'. Yo iba a España." (I02)*

> *"Empecé a trabajar en un bar y, es más, como más de euskera. Y claro, gente cuando me venía me pedía cosas en euskera. Yo te lo juro, no entendía nada. Yo no sabía, no sabían qué idioma hablan, pero luego me he dado cuenta que es un idioma." (I03)*

> *"Ba askotan gertatzen zaigu, urte dezente daramatenak eta oraindik kosta egiten zaienak gazteleraz hitz egitea. Bai. Batez ere emakumeak. Etxeetan gelditzen diren emakumeak. (...) eta gero nabaritzen dugu haien seme-alaben hizkuntzan ere bai, kosta egiten zaiela. Inkluso artikulazioan. Urte batzuk pasata, eta oraindik hitz egiten dute." (B01)*

Lana kokapen soziolinguistikoa jasotzeko espazioa izan arren eta horrek kontzientzia pizten duen arren, elkarreragin horiek anekdota sinbolikoetan geratzeko arrisku

handia dute. Jendaurrean lan egitea eskatzen duten lanpostuetan gaztelera baliatzea *nahikoa* bezala pertzibitzeko aukera dago eta, beraz, kontzientziazio horrek askotan ez du iraunkortasunik edota ez dakar ekintzarako jauzirik.

> *"He trabajado toda la vida de panadero (...) [dominar el castellano en] Seis meses. Como yo estudiaba mucho, estudiaba mucho. (...) Yo estudiaba, tope. A tres escuelas iba, (anon.) seguido todos los días. Luego trabajaba con españoles mismos, y ya con la lengua se suelta la lengua." (I01)*

Esandakoarekin lotuta, jendaurreko lan horiek bide ematen dute auzotarrak ezagutzeko. Horrelakoetan gazteleraren bitartezko integrazioa gertatzen da, nahiz eta euskara faltan somatzen duen bezerorik badagoen. Hutsune horren adierazpena batzuetan begi onez ikusten dute euskal hiztunak ez direnek, baina beste batzuetan ez da ondo jasotzen:

> *"Claro, de verdad, que cada uno te entra, te saluda, te, ya conoces en la calle y vas como que en tu barrio. (...) Y de verdad que eso ayuda mucho, e. Conocer el barrio, porque ahora, veo todos conocidos. Imagínate, antes no tenía amistades por el barrio, nada." (I02)*
>
> *"Yo la verdad, al principio me enfadaba un poco, porque, claro, la gente que venía al bar y me pedían euskera y yo le pedía 'por favor, ¿puede ser en castellano?'. Claro, mucha gente bien, pero había casos como que la gente me miraba mal por eso, entonces yo me enfadaba un poco, porque tampoco lo veo justo. Porque, claro, tú no sabes mi situación. No sabes si, de dónde soy y cómo llevo, cómo estoy viviendo ahora, para decirme algo así como '¡¿cómo que no sabes a euskera?!', o algo así o 'tienes que aprender'. Lo entiendo a esa gente porque también sé esa historia y tal, pero también, es como que me daba antes mucha rabia porque, claro, esa gente no sabe cómo, qué difícil es aprender otro idioma." (I03)*

Ibilbide profesionalaren garapeneko hasiera fasea gainditua dagoenean, euskararako *beharra* agertzen hasteko aukera dago, kasu batzuetan aurrerapausoak emateko bide bezala hauteman daitekeelako. Behar hori, baina, ez da gehienetan behar nagusi bihurtzen eta, beste behin, ez du zertan ekintzarik mobilizatu, *besteentzat* gelditzen den zerbait delako:

> *"Pero ahora con el tiempo piensas, igual te puedes buscar trabajo más, no solo hostelería, ¿no? Un poquito más, más abierto, más, Osakidetza, cualquier cosa, ¿no? Hacer un poco esfuerzo (...) yo creo que sí. Pero, claro, hay que estar libre, libre, ¿no?" (I02)*
>
> *"Hombre es que si quieres trabajar al buen trabajo, que tienes que dominar euskera (...) es que tienes que sí o sí. La verdad no [me he planteado nunca aprenderlo]." (I01)*
>
> *"Yo, la verdad, lo veo muy bien [que se pidan dos idiomas para ciertos trabajos], porque, aunque yo no, por ejemplo, yo no sé euskera, y por ejemplo, yo si quiero trabajar en una empresa donde se pide, no puedo por el tema de idioma, pues la verdad es que pienso, a ver, pues, si tanto quieres, aprendes y ya está. Con lo básico, si ya tienes, una empresa, ya te puede coger. Entonces es como, yo lo veo bien, porque al final, la gente que es de aquí necesita tener a la gente que tienen*

competencias para poder hablar con cualquier tipo de persona, que si habla euskera o si habla castellano. Entonces, si a todos van a coger que no saben euskera, ¿quién le va a atender a la gente que solo habla euskera?" (I03)

7.2.2 Hezkuntza

Integraziorako bigarren fase honek hezkuntzari ere erreparatzen dio. Ikastetxeek, bakoitzak bere erara, harrera egiten diete ikasle etorri berriei hainbat prozedura aktibatuz.

"Harrera egiteko baditugu zenbait dokumentu, erabakita eskolan nola egingo ditugun harrerak." (B01)

Aipagarria da ikastetxeak, haurren elkarguneak ez ezik, helduenak (gurasoenak) ere izan daitezkeela:

"De escuchar, de escuchar e. Pues muchas veces, para algunas mujeres con hijos, su apoyo natural es la madre del amigo de mi hijo, y que es una, pues eso que le va a recoger. O sea, a veces se encuentra red entre las madres de la escuela, por ejemplo. Por escuchar digo, e." (B10)

"Azkenean eskolan, sarrera-irteeretan... (...) Eta niretzako bigarren tresna oso potentea da, eskolaz kanpoko jarduera horietan. Ikasle horiek futbol taldean apuntatzen badira, edo dantza taldean edo horrelakoetan, horrek gero sortzen du dinamika bat, partiduetara joatea, erakustaldietara joatea." (B03)

Errealitate hori, baina, ez da homogeneoa, guraso batzuren kasua ezberdina baita. Heldu batzuk, nahiz eta bertaratu, ez dira saretzen eta, gainera, badago bertaratzen ez denik. Azken horrek, batzuetan, lan-baldintzekin du zerikusia; beste batzuetan, ohitura soziokulturalek azal dezakete egoera:

"Gurekin behintzat, o sea jaso, etortzen direnean umeen bila ez dira geratzen. O sea, hartzen dituzte eta joaten dira. Ez dute elkar... o sea ez dute hitz egiten. Behintzat gurekin." (B06)

"Ikastetxea izan daiteke haurrak utzi eta hartzeko lekua. Gero ere beste errealitate bat lehen aipatutako horrekin lotuta, guraso asko ezin dira arratsaldeko 15:30etan haurren bila etorri, lanean daudelako. Haur asko bakarrik ematen dute gaueko 21:00ak arte, gurasoak lanean daudelako." (B03)

"Erlazio hori ere ez da asko ikusten, ze gehiengoak baimena dauka etxera joateko bakarrik. (...) Eta askok, etortzen direla normalean arabiarrak, baina kanpotarrak asko etortzen direla esanez ezetz, beraiek uzten dietela etxera bakarrik joaten beraien tokietan horrela delako. Haurrak bakarrik doazelako etxera eta ez dagoelako arazorik. Orduan hor kulturalki zerbait badago." (B06)

7.2.2.1 Euskara hizkuntza-integrazioan

Haurrengana itzuliz eta hizkuntzari begiratuz, esan behar da euskara irakasten zaiela, nahiz eta erraztasun, erritmo, aurretiko ezagutza soziolinguistiko eta jarrera ezberdinekin gurutzatzen den ikasketa hori. Ondorioz, beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen dira hezkuntzan, bai aitortzarako bai komunikaziorako. Bada hezkuntza formalean eta ez-formalean erreproduzitzen den dinamika komunikatibo bat:

> *"Etorri direnean, gaztelerarik gabe, oso polita izaten da lehenengo bi hilabeteetan euskaraz ematen duten saltoa. Euskaraz pasada bat nola ikasten duten, kasi-kasi berdindu egiten dira besteekin bizkorrak badira horrela. Eta aurten gertatu zaigun Mongoliatik etorritako familia batekin. Eta lehenengo hila... Edo arabieraz hitz egiten duen bat, duela pare bat urte berdina gertatu zitzaigun. Lehenengo bi hilabeteetan euskaraz, inkluso beraiek esatea ez, ez euskaraz, esan euskaraz, nik euskaraz ulertzen dizut." (B01)*

Ikastetxearen bidez, beraz, haurrek euskara ezagutu eta ikasten dute, baina goiz bihurtzen da euskara 'ikastetxeko kontu', alderdi soziala gehienetan gaztelaniaz gauzatzen delako auzo hauetan. Salto txikia egon ohi da, gainera, egoera diglosiko horren eta hautemandako derrigortasunaren inguruko kritikaren artean:

> *"Eta jada bi hilabetetatik aurrera, ya konturatu nola haien arteko, hemen ikasle guztien harremana gazteleraz da. Orduan jada, gelatik kanpora ikasten dutena, gaztelerak bi hilabetetan jada harrapatzen ditu euskara mailan, eta orduan jada pasatzen dira gazteleraz eta estankatu egiten dira." (B01)*

> *"Beraientzako euskara da geletan dagoen zerbait. (...) gelditzen dira oso, oso harrituta, ba kontatzen diedanean 'nire seme-alabekin ez dakit nora joan naiz eta orduan esan zion hau eta bestea eta', '¿pero eso se lo dijo en euskera?', 'bai', '¿por qué se lo dijo en euskera?', 'porque ellos viven en euskera'. Hori, beraiek... eta harrituta gelditzen dira. (...) ez dago, ez dago euskaraz bizi den familiarik. Bi edo hiru egongo dira, harremana dutenak, baina ez dira bizi euskaraz. Orduan beraiek ere, ez dute errealitate hori ezagutzen." (B01)*

Horrek berebiziko garrantzia du, *bertako* eta *immigrante* irudi bereizi eta homogeneoetatik aldentzera behartzen baitu.

> *"O sea como ondo hartzen dutela euskara eta hitz egiten diezu eta, o sea, batez ere kanpotarrak direnak, eta ondo hartzen dutela eta saiatzen direla. Gero hemengoak ez dira hainbeste saiatzen eskola horretan." (B07)*

Irakasleak, ondorioz, bere hizkuntza praktikak egoera soziolinguistikora moldatu behar ditu askotan.

> *"Azkenean, hemen oso zaila egiten zaiguna da D eredu bat mantentzea e. (...) azalpena 'egingo dugu hau, bestela, horrela jarriko gara', eta ume guztiak begira. Orduan zer egingo dut? Banaka-banaka belarriak xuxurlatu edo hitz klabeak? (...) Beste eskola batzuetan, dena euskaraz esaten duzu eta hurbiltzen zara ulertu ez duenarengana eta belarrira esaten diozu, edo bikoteak*

> *esplikatuko dio, eta ia-ia ez duzu gazteleraz hitz egin behar. Hemen irakasleek gaztelera pila bat erabiltzen dugu." (B01)*

Immigranteen kasura itzuliz eta familien osotasunari erreparatuz beste behin, azpimarragarria dirudi jarrerak eta ikasteko prestutasuna etxean ikasitakoak ere izan daitezkeela, bai positiboak bai negatiboak:

> *"Etorri eta, 'ah, pero tienen que aprender en... en eso?'" (B01)*

> *"Badira familiak lehenengo egunetik a tope eta nabaritzen da seme-alabek erraztasunez egiten dutela. Beste batzuk muga gehiago, ez dute ikusten beharrik, beraientzako estorbo bat da, eta ia-ia exijitzen digute haien seme-alabei erderaz akademikoan aurrera egin dezaten. (...) Pues batzuk badatoz hitz batzuk jada ikasita, eta, gainera, seme-alabei esaten, etorkizunean lanerako lagungarria izango zaizu. Eta beste batzuk ez. Ez, eta, gainera, seme-alabek jada esaten dizute 'pero si no necesito, si mis padres trabajan'." (B01)*

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak eta familietako hizkuntza-politikak, baina, ez dira euskararekiko prestutasunean bakarrik antzematen: haur batzuen agentzia ezinbestekoa bihurtzen da gurasoak euskal hizkuntza eta kulturara hurbiltzeko prozesuan; izan ere, etxeko bakarrak izan ohi dira euskarazko sozializazioa ere jasotzen dutenak.

> *"Nire bizilagun batek orain eduki du, haurra dauka urte eta erdikoa. Seguraski urte eta erdiko horrek lau urte dituenean eta Gabonetan Olentzero kantatzen duenean, hor etxekoak hasiko dira: ui, zer da? Eta seguraski 50-70ean pasatzen zen berdina. Ah, hemen Olentzero dago? Ez da Papá Noel? Nik uste dut hasten direla horrelako prozesu horiek, eta hor batzuk gehixeago integratzen dira." (B02)*

Agentzia horrek, baina, haurrak batzuetan beraiei ez dagozkien roletan jartzen ditu.

> *"[X ikastetxekoekin] ez hainbeste. Behintzat direlako latino-amerikarrak, baina... Baina [Y ikastetxekoak], direla arabiarrak gehiengoak, ba haurren bat egon behar da hor itzultzen, zerbait esan behar baldin badut. Eta klaro, fidatu behar naiz, porque claro, arabiarrez hitz egiten du, eta bere itzulpena izango da berak nahi duena." (B06)*

Azkenik, esan beharra dago gehienetan eskola publikoetan gertatzen dela eta, beraz, nahasketa eza iraunarazteko joerak egon daitezkeela hezkuntza zentroen hautuetan. Berdin gerta daiteke aisialdi publiko eta pribatuen banaketan.

> *"Hona datozen familiak dira egoera sozioekonomiko kultural konkretu batekoak, eta ez da banaketa egiten. Eta dirua baldin badaukazu kontzertatura, euskalduna bazara ikastolara, erlijiosoa bazara eta diru pixka bat badaukazu... Eta beste guztiak hemen. Eta lanketa hori ez da egiten. Ez da erreala. Orduan, zer gertatzen da? Euskaldunak hemen, erlijiosoak eta bueno hemen, eta hemen dirurik ez zeukana eta euskalduna ez dena, bertakoa ez dena. Orduan euskaldundu behar duzu berri guztia, dena elkarrekin. Hori oso zaila da." (B01)*

"Badaude eskola batzuk estigmatizatuagoak edo eta beste bat, agian normatiboagoa edo." (B07)

"Nabaritzen da astean zehar agian extra-escolarretan edo ez daudenak etortzen direla, eta hori, pues askotan esaten direla ere zailtasun gehi-. Es que hemen da pixka bat denetarik e, baina, pues hori, badaude pertsona migratzaileak, baina ere daude auzoko beste, pues hori, ijitoak badaude, edo pertsona txuriak, baina agian akademikoki edo sozialki ez dituztenak, o sea, hain harreman sendoak edo. Eta gero bai nabaritzen da larunbatetan edo dela espazio bat, anitzagoa, pues denetarik, normatiboagoak ere etortzen direla, ez dutelako... Pues hori, plan de sábado, etortzen gara, eta aisialdi talde bat bezala izango... hori. Horiek ez datoz astean zehar daudelako sartuta pues en pintura, eskola kirola, futbola, tenis... eta gainera, apuntatuta denetara. (...) Eskola berekoak izaten dira normalean, orduan, beraien artean rollo ona dute eta harremana badute. Baina alde nabaria dago entre normatibo eta zailtasun gehiago." (B07)

"Bai nabaritzen dela bidaia eta horretan. (...) Klaro, hori denek ezin dute pagatu. Donosti Cup jolastu nahi dutenak, Donosti Cup-ek kriston pila kobratzen du. Uste dut direla 80€. Orduan, klaro, aste bat jokatzeko 80€ pagatzea, familia guztiak ezin dute." (B08)

7.3 INTEGRAZIO SOZIALA ETA KULTURALA

Integrazioaren hurrengo faseak alderdi soziokulturalari erreparatzen dio. Aurreko faseetan jasotako diskurtsoek integrazioa prozesua erdi-arrakastatsu bezala (batzuetan arrakastatsu, beste batzuetan ez) aurkeztu duten arren, fase honi dagozkienek tonu ezkorragoa hartzen dute.

Piramidearen metaforari erreparatuz, aurreko azpiataletan aipatutako urgentziek eta egoera ekonomiko eskasak bereziki zaildu dezakete integrazio soziokulturala:

"El tema de amigos, yo aquí lo llevo super mal. Porque al final yo aquí no tengo a nadie, y claro, entre las cosas que tengo, que no tengo casi ningún tiempo libre y tal, no puedo conocer, no tengo oportunidad de conocer nueva gente. Entonces, es como que muy difícil encontrar a alguien. Muy difícil." (I03)

Aurrekoari jarraiki, gainera, hainbat elkarrizketatan oso aipatua izan da baxua dela immigranteen parte hartzea bertakoek auzoan antolatutako jardueretan, bai alderdi sozialean bai administratiboan:

"No suelo, ver sí, pero participar, como son fiestas de noche y yo de noche siempre he trabajado de noche. No se puede." (I01)

"Auzo elkarteak egiten dituen gauzak gutxi, ikusi dudana, gutxi, mugimendu gutxi hori, betiko Bidebietako jendearekin, bai, eta hemen kostatzen zaigu pila bat parte hartzea. Pila bat. Oso etxeetan sartuta bizi direla iruditzen zaigu orokorrean. Etxeetan sartuta. Eta irteten badira, haien artean elkartzen dira." (B01)

> *"Ez dute agertu nahi eta joaten naiz taberna latinoetara, joaten naiz barazki denda edo fruta-denda magrebi-arabiarretara, pelukerietara, zuzenean gonbidatuta nire bizilagunak... Ez dira etortzen. Hori da nire esperientzia." (B02)*

Hori ulertarazten duten hainbat arrazoi identifikatu dira. Esaterako, nagusitzen den kezka bat da antolatutako jarduerak eta egunerokotasuneko dinamikak bertakoentzat eginda daudela, eta horrek berariaz zailtzen duela pertsona-taldeen nahasketa.

> *"Komentatu izan dugu 'ze gutxi etortzen dira' eta gero hausnarketa da, klaro, ze gauzak antolatzen ditugu beraientzako erakargarriak izan daitezkeenak? Nik bai, ikusten ditut ez dakit magrebtar familiak edo ekialdeko, esaten duzu, gure literatur solasaldiak beraientzako ez dira, gure kontzertuak beraientzako? (B03)*

> *"Zeintzuk doaz liburutegietara? Ohitura daukatenak. Zeintzuk doaz polikiroldegira? Eta hor teknikariek askotan esaten dute tornoak adibidez, polikiroldegietako tornoak, barrera fisikoa baino mentala ere bada (...) zu ez zaude identifikatzen zure burua horiekin. Ez naiz sartzen, nik ez dut nire burua hor ikusten." (B04)*

Gainera, nahiz eta egoera horrelakoa izan, egoera hori onartzeko edo beste aukerarik ez ikusteko joerak nagusitzen direla dirudi, hainbat arrazoi direla medio.

> *"Ez dute ezer erreklamatzen, ez dute agentziarik esateko (...) eta beste, ba neurri batean, ziurrenik ba igual paperak ez dituztelako guztiz, edo besterik gabe sentitzen dira daudela beraiek, eskubiderik gabeko, beraiek ere diskurtso hori asumituta." (B03)*

> *"Gure espazioetatik atera behar gara, baina ez bakarrik migrazioaren kontuan. Ze bestela artatzen ditugu gugana etortzen direnak, eta horiek dira batzuk, ez denak." (B04)*

Jarduera eta dinamikak ez ezik, kale espazioa bera ere askotan ez da partekatua. Etxeak eta kalea ulertzeko moduetan desberdintasun kulturalak daude, eta beraz, baita ohitura desberdinak ere.

> *"Etxean. Etxean, etxean. Batzuentzat parkera ateratzea esperientzia bat da. Asteburua, askok eta askok etxean pasatzen dute. Pantaila erabilpenak ere eragina dauka, baina, hala ere, beraiek daukate etxean elkartzeko. O con la tía, edo... Hori bai, beraiek sare txiki horretan elkartzeko bai." (B01)*

> *"Ulertu behar da beraien herrialdeetan kalea biolentziaren sinonimoa da, askotan amak, amekin daudelako diot, amak lanean dauden bitartean etxean egotea lasaitasuna ematen diela eta ez kalean egoteak. Orduan, horrek zer suposatzen du? Ariketa fisiko oso gutxi egiten dutela, gainpisua gora (...) kohesio soziala oso gutxi, harreman soziala ikastolatik kanpo, eskolatik kanpo oso gutxi dauzkate. Hizkuntzaren erabilera ere ikastolatik kanpo 0. Eta gero beste arrisku batzuk: teknologiarekin daukaten harremana. Superbisiorik gabe daude etxean, teknologia gora, teknologia behera. Elikadura, edozein gauza meriendatu dezakete." (B04)*

Eta, kalera jotzen denean, kaleko elkarguneak ere ez dira partekatuak izan ohi.

> *"Eta esaten duzu, hostia tío, hauek hemen daude, han eta hemen, han eta hemen, baina gero beraien artean harremana dute. Ez dakit nola komunikatzen diren, baina bueno, baina konturatzen zara gu beste burbuja batean bizi garela. Gure taberna zirkuituetan ez dira elkartzen, elkartuko dira etxeetan edo elkartuko dira ba... (...) asteburuetan horko autopista azpiko futbito zelai horretan ekuatoriano pilo bat elkartzen ziren futbitoa jolastera eta asteburuko... merendola, hor e, elkarguneak, elkarguneak dira." (B03)*
>
> *"Plaza honetan egoten dira dezente." (B05)*
>
> *"Parkean ere bai, baina es que guk ikusten duguna, eta gero, parkean beste eskoletatik datozen familiak etortzen direnean, nik parkean ez dakit zer gertatzen den." (B01)*

Elkarguneen gaian aipagarria da hirigintza aldaketek kalean egoteko espazio publikoak murriztu dituztela, eta horrek auzoko bizitza egiteko eta auzoko jendearekin elkartzeko zailtasuna dakarrela. Gainera, ostalaritza eta merkataritzaren eremuko espazio pribatuak ere geroz eta gutxiago daude tokiko ezaugarri bereziei lotuta. Gaur egun horiek betetzen dute lehen kale eta plazek betetzen zuten topagune funtzioa. Eta horrek auzotarren arteko dinamikak lausotzen ditu. Gainera, murriztu egin dezake herritarrek gune hori bereganatzeko aukera. Gune pribatuetan, kontsumitzaile rolean, auzotarrek gune horretan ezarritako ohituren arabera jokatzen dute. Gune publikoetan, ordea, bakoitzaren ohitura eta arau sozialak ezartzeko marjina handiagoa izan dezakete, hau da, agentziarako aukera handiagoa.

> *"Ikusten dituzu zentro komertzialak eta Garberak eta horrelako pila bat, hor ibiltzen dira, asteburua hor pasatzen dute. Hego Amerikarrak daude, azkenean dira pribatizatutako espazioak ere bai. Pribatizatutako espazioak. Kalean ya gauza gutxi. Plazan gauza gutxi. (...) zuk horrelako espazio batean ezin duzu inolako protesta egin. Pribatizatutako espazio bat delako. Ezin duzu, zaude eremu pribatu batean, eta denak horra joaten gara." (B03)*
>
> *"Lo que pasa que no sé también qué espacios naturales tenemos cualquier persona. O sea, es la escuela. Pero lo demás, los adultos, más allá de actividades, cualquier adulto e, que quieran un poco abrir su ámbito de relación." (B10)*
>
> *"Yo me imagino que en todos los barrios, sobre todo en comercios en los que son diarios. (...) ya con las grandes superficies se ha roto esa dinámica. Pero antes la gente iba a comprar el pan a la panadería. Entonces eso generaba que todos los días estabas con las mismas personas, y además, normalmente los que hacen ese tipo de compra gente mayor... Entonces entras en una relación un poco de... ¿no? Más, más estrecha." (B09)*

Gainera, migratu duten pertsonek, askotan, beste ohitura soziokultural batzuk dakartzate, eta horren araberako antolaketa sozialak eta elkarguneak garatzen dira:

> *"Es que hango bizimodua eta hemengoa, bua. (...) Eta klaro, hemengo funtzionamendua eta hangoa ezberdinak (...) Kulturalki, eta alkohola, eta gizonezkoen rola... Erlijioa." (B05)*

"Kanpotarrak direnak esan nahi dut, normalean ez daukate interes handia beste tradizio... O sea beste, kasu honetan euskarari gerturatzeko. Ez? Nire ustez beti saiatzen dira bere, bere tradizioak sartzen, ez? Edo... O sea ez dute nahi beraien tradizioak aldatu, edo ez dakit nola, nola esan." (B06)

Ondorioz, berdinen arteko talde isolatuak sortzeko eta erreproduzitzeko joera dago; ez Euskal Herrira iritsitakoen artean bakarrik, Euskal Herritik alde egindakoen artean ere bai, eta horrelako kasuetan, diskurtsiboki, irakurketa bikoitz edo bi aurpegitako irakurketak sor daitezke batzuetan:

"Askotan, gainera, denok bezala sentitzen zara erosoago gure ondokoekin." (B05)

"Bai, normala den bezala. Azken finean, berdinen, zuk, zure berdinen taldea bilatzen duzu." (B05)

"Humanoa da, pertsona bezala ulertzen duzu, ze guk oso harro esaten dugu Boisen euskara bizirik dagoela eta ikurrina daukatela. Eta hori zergatik da? Integratu dira? (...) Zergatik ez ziren integratu? Naturala delako. Bakoitzak bilatzen dugu gurekin, ez dakit, gertutasuna, konplizitatea, erosotasuna, gauzak konpartitzeko, antzeko gaiak..." (B02)

Eta, era horretan, harreman ezak konfiantza eza ekar dezake, eta alderantziz. Aurreiritzi eta beldurrak aktibatzen dira ezezagunaren aurrean. Ezagutza horretan edo gutxieneko harreman horietan sakondu ahala, ordea, beldurra txikitzen eta konfiantza handitzen joaten da.

"Ez dakit deskonfiantza hitza egokia, edo hurbiltasun eza, ez dakit nola. Baina hori, ez? Distantzia." (B05)

"[Las personas migrantes me hablan] de que provocan miedo. Yo eso oigo mucho a los hombres magrebíes. Sí, que se dan cuenta que pueden. Y cuando les hacen acompañamiento los educadores ven ese rechazo. (...) acompañar a un hombre magrebí a abrir una cuenta en un banco es una experiencia. Dices, y si hubiera venido solo, ¿qué hubiera pasado?" (B10)

"Bizilagunek ikusten dituztenean auzoan parte hartzen, gure ikuspegia aldatu egiten da." (B04)

Nabarmendu behar da, aipatutako joera edo jokabide horiek desberdin funtzionatzen dutela haurren kasuan. Aurreiritzi gutxiago, malgutasun handiagoa eta berdintasunerako baldintza egokiagoak garatzen dira adinez txikikoen arteko harremanez ari garelarik.

"Nik uste dut kasu honetan auzoaren izaerak asko egiten duela, e. Hemen badira, eta kultura aniztasuna ikaragarria da. Eta gero, eskolan ere bai elkartzen, bai edo bai, partekatu behar dituzte espazio asko. Orduan, edo moldatzen zara, edo zuk ikusiko duzu. Nik uste ez dagoela besterik. Eta, adibidez, haurrekin sumatzen dut, beraiek ez dauzkate aurreiritzirik, dira haurrak, ez dute egiten desberdintasun hori denborarekin hasten zarena egiten." (B07)

"Keba keba keba. (...) Azken finean ikastolan berdinak dira, klasekideak edo, orduan uste dut normalizatu dutela." (B06)

7.3.1 Euskara integrazio sozial eta kulturalean

Puntu honetan garatutakoa hizkuntzara ekarriz, beste behin nabarmentzen da euskararen presentzia urria. Hau da, auzo hauetan, kulturarteko harremanak gertatzean ere, ez da euskararen erreferentzialtasun soziokulturalik egon ohi. Ondorioz, auzootako integrazio soziokulturalerako euskara ez dela *behar* hautematen da:

"Azkenean, pixka bat inguruak egiten dizu ez? Ez dakit, Zarautz batean bizi baldin bazara, ikusiko duzu jende askok euskaraz hitz egiten duela, beste errealitate bat da. Baina nik, Intxaurrondon, (...) zuzenean bizitzera hona etortzen zara (...) eta bai, euskara badagoela (...) baina gizarte mailan ez dago euskal giro, nolabaiteko euskal giro bat, ez dakit. Hor nik uste dut inguruak asko egiten duela, azkenean inguruan pila bat egiten du." (B03)

"Tenía un amigo marroquí. Hablaba bien euskera. Pero él, claro, él vivía en un pueblo en Amezketa, por ahí. La gente que vive en los pueblos hablan más euskera que español. (...) la gente vive en un pueblo y trabajan con caseros, así cogen el euskera rápido. Nunca [se han dirigido a mí en euskera]." (I01)

"Askotan beharra izaten da e, beharrak forzatzen zaitu askotan pausuak ematera. Sentsibilitatea, sentsibilitatea azkenean beharrak sortzen dizu sentsibilitatea". (B03)

"Hay muchas facilidades de estar en castellano y no se hace el esfuerzo. No es como yo que sé, te vas a Londres y ahí no te queda más narices que aprender inglés." (B09)

Behar horren inguruko pertzepzio ezberdinek, gainera, muga linguistikoak eta harreman mailako urruntasunak eragiteaz gain, talka ideologiko eta diskurtsiboak ere eragin ditzakete.

"Sí que pienso que la gente en Euskadi es como más, que están enfocados en su idea principal de ser país diferente. Que no sé, que no le importa nada más, vamos a decir. Y yo pienso que hay cosas en la vida mucho más importantes. (...) por ejemplo, pues yo como he vivido el tema de guerra (...) [tabernako bezero batek Real Madrid-en futbol partidua kentzea eskatzeko Errusia eta Espainia konparatu izanaren adibide bat ematen du] es como, no sé, si en ese momento pienso que la gente no tiene corazón, o es que está solo enfocado en su vida, que no tienen... Que piensan que no pueden hacer daño a nadie más, vamos a decir, cuando sí puede hacer." (I03)

Errealitate horren aurrean, bertako jatorria duten auzotar batzuek XX. mendean Espainiatik heldutako auzotarren integrazioarekin edo integrazio kultural urriarekin parekotasunak bilatzen dituzte. Eta aurreko migrazio aldi horretako populazioaren integrazio soziolinguistikoari ikusten zaizkion gabeziak, gaur egungo migrazioaren integraziorako oztopoko gisa ulertzen dituzte, neurri batean.

"Bi mundu bilakatu ziren eta euskaldunak bere mundua zeukaten eta beste guztiak beste mundu bat zeukaten, nahiz eta tarteka, sortzen ziren beraien arteko lotura batzuk edo zubi batzuk. Orokorrean bi mundu horiek egoten ziren, eta hori oraindik nik uste dut ikusten dela. (...) 'Gabonak, Olentzero!' Olentzero beti egon da, eta (anon.) esaten 'nola beti egon dela Olentzero? Nik ez dut sekula ikusi'. Edo Santa Ageda, bai, beti egon da. Beti egon da igual baserrietan, eta kalean ez. (...) Inoiz ez, ez direlako topatzen mundu horiek. (...) Jarraitzen dute beraien mundua egiten. (...) Orduan, hemen jaiotakoentzako edo familia guztia hemengoa duenarentzako desberdina da nola bizitzen den hemengoa izatea. Bueno, ba, orain guzti horrekin, orain daukagu jende bat etortzen ari dena beste herrialde batzuetatik, Afrikatik, Asiatik, Amerikatik... eta orain entsalada kristona. (...) Segun zein mundutan sartzen den, oso desberdin ulertzen du euskara, oso desberdin ulertzen du euskal kultura. Ze Euskal Herri edo ze Altza, edo ze Donosti edo zer nahi duzuna erakutsi nahi diozu?" (B02)

"Es que erraza da eskatzea, baina beraien errealitatetik, askotan, nik uste dut konplikatua dela. Eta gero, hemengo asko ez direnean gai, joaten zarela okindegi edo kafetegi batera eta hemengo betiko norbait eta ebaki bat y 'el qué'?'. Eta niretzat hor gainbehera gertatzen ari da gainera. Orain ya konplexurik gabe. 'Y me la suda, es que no voy a hacer ni esfuerzo ya'. (...) Bazegoen kontzientzia bat, gaur egun sentsazioa daukat galtzen ari dena. (...) Eta esaten duzu, 'ostia eskatuko diot nik magrebtar bati euskaraz hastea, beste hauek (...) esfortzu gutxienekoa egitera ere iritsi ez direnean'." (B03)

7.4 IDENTITATE INTEGRAZIOA

Immigranteen, batez ere helduen, identitateari buruzko datuak bertakoen testigantzetatik eskuratzea zaila izan da. Azaleratu da bizipen eta hautemate oso desberdinak daudela eta, kasu batzuetan, problematikoak izan daitezkeela jatorrizko herria edo kultura eta harrerakoa norberaren baitan ulertzeko prozesuak.

Haurren kasuan, aipatu da nahiz eta batzuk hasieran jatorriko herrialdearekin atxikimendua izan, beste batzuk ez dutela horri buruz hitz egin nahi izaten, bizipen mingarriak tarteko. Ondorioz, identitatearen garapenean denborak abiadura ezberdinak har ditzake kasu bakoitzean.

"Nik uste dut kriston gatazkak dauzkatela bere barruan. Orokorrean, batez ere Hego Ameriketatik edo Ertameriketatik etorritako familiekin. Beste herrialde batzuetatik ez zait hainbeste gertatu. Ba, adibidez, Marokotik datorren familia bat, Aljeriatik datorren familia bat, Mongoliatik, ez dakit. Ukraniarrekin ere ez zait gertatu. Daukate barne gatazka bat, maitasun-gorroto, zeozer oraindik osatu gabea, eta askotan beraien jatorrizko herriari buruz badirudi ez dutela hitz egiten etxean. Borratu egiten dela. Edo inkluso ikasleak eduki ditut, gaizki hitz egitea bere jatorrizkoa herriari buruz. Min handiak, edo sufrimendu handiak pasatako familiak dira (...) Batzuetan egiten dugunean lanketa beraien herriari buruzko azalpenak eta egiteko,

hemen, gela honetan, ezagutzen dituzte zenbait gauza beraien herrialdekoak. Eta 'etxean galdetu' eta uf, batzuetan kostata". (B01)

"Jartzen dituztenean haien 'nongoa zara', zer den nongoa, bakoitzak zer sentitzen duen. Gero joaten dira aldatzen. 'pixka bat euskalduna' sartzen dute." (B01)

Haurrak izateak, gainera, eragina izan dezake gurasoen identitatean eta lurralde honekiko sentitzen duten lotura mailan.

"Una vez tienes los hijos aquí, ya eres de aquí. Encima ya pasas más tiempo que aquí, y ahí vas solo 20 y 25 días nada más." (I01)

Jatorrizko herrialdeetara itzultzeari dagokionez, askok ez dute itzultzeko planik. Batzuetan nahia eta ezina da, beste batzuetan nahirik ere ez dago.

"Y eso que llevaba años y estaba a gusto, pero echaba de menos. Igual la manera de ser, o la manera de. Y no le faltaba trabajo e. Y se ve que había bastante familia, porque me dijo, y tengo un primo que es pintor y otro no sé qué. Él espontáneamente me hizo ese comentario. (...) Y luego hay gente que no, que se ha integrado perfectamente." (B09)

"Mi impresión es que muy pocas veces [suelen querer volver a sus países]. Sí, mi impresión es que no." (B10)

"Yo sigo teniendo mucho cariño a Ucrania. Sigo yendo cuando tengo vacaciones largos a Ucrania a visitar a mi familia (...) Pero en la hora de pensar de un futuro sí que me veo más en España, vamos a decir. Porque por la situación. O sea, yo te diría, si no hubiera pasado la guerra igual no me cambiaría de país, sinceramente. Pero la situación que tengo estoy pensando y digo, 'es que no tengo futuro ahora en Ucrania'. Yo puedo ayudar mucho más a mi familia estando aquí, trabajando, enviar dinero, o que si hay una situación peligrosa, que ellos pueden venir y habrá sitio donde dormir. Es como que, sí que por mi bien y por bien de mi familia, yo sé que me tengo que quedar en España, y yo adoro a España. O sea, yo, a mí me encanta como país. Pero tengo cariño a Ucrania. Que si eligiera entre estos dos países me elegiría Ucrania, pero ahora mismo es imposible." (I03)

Batzuetan, ez itzultzearen erabakiaren oinarrian jatorrizko herrialdearen egoera dago; beste batzuetan, integrazioaren garapen arrakastatsua egon daiteke. *Etxea*ren kontzeptua interesgarria da: batzuetan zentzu materialean, besteetan sinbolikoan.

"No vas a volver ya. (...) Claro, tengo casa comprada aquí ya." (I01)

"Me voy todos los años. (...) Ir, a ver si vuelves, a ver si no te da... Mucho miedo e, mucho miedo tengo. Te vas ahí, por favor, '¡¿qué es esto?!' (...) No, yo soy de aquí. Yo no sé, me siento. Yo quiero volver a mi casa, casa es, ahora, aquí. (...) Si me siento ahí perdida. Perdida e. Con la gente me extraña. (...) Llego a Bilbao, ya sé todo. Es que de verdad, me encanta. (...) igual porque me gustaba aquí desde principio." (I02)

"Teniendo esa situación no sabes dónde está tu casa exactamente" (I03)

8 ONDORIOAK

8.1 HAMAIKA MUNDU

Soziolinguistika Klusterraren aurreko ikerketak erakutsi zuen 50-70 hamarkadako migrazio uholdeak bi munduren sorrera ekarri zuela (Uranga, Basurto eta Laita, 2023). Txosten honetan aurkezten den ikerketa honek erakutsi du, gaur egun, bi mundu ez ezik hamaika mundu sortzen ari direla. Eta hainbat dira egoera horretan eragiten duten faktoreak.

Emaitzek erakutsi dute **bertan jaiotakoek eta immigranteek sarri ez dutela ia harremanik**. Psikologiaren ikuspegitik aski azaldua izan da kidetasun-egiturak partekatzen direnekin erlazionatzeko joera kidetasun berriak eraikitzeari gailendu ohi zaiola, hau da, norberaren berdinak direla pertzibitutakoekin elkartzeko joera handiagoa duela gizakiak ezberdinekin baino (Kindler, Ratcheva eta Piechowskak, 2015, 6. orr). Joera hori integrazioaren fase desberdinetan agertzen da, forma desberdinak hartzen baditu ere.

Batzuetan, **lan-integrazioan esate baterako, nagusiki immigranteek osatutako harreman- eta kidetasun-sareen bidez integratzeak efektu mugatzailea joka dezake**. Gertuko sare horiek biziraupenerako eta lanerako integrazioan lehen urrats bezala berebiziko garrantzia izan dezaketen arren, lanpostu horiek jatorriaren araberako *nitxo* batean kokatzen badira, bestelako garapen profesionalerako eta aurrerapen sozioekonomikorako ateetatik urrun mantendu dezakete pertsona (Kindler, Ratcheva eta Piechowska, 2015, 6. orr.).

Lan arloari luzeago erreparatuz, ikusi da xedea askotan beste pertsona batzuk artatzean datzala, adibidez, ostalaritza edo merkataritza bezalako arloetan. Horrek herritarrak ezagutzeko eta horiekin egunerokotasunean harremana izateko bide ematen die etorkinei, baina esan daiteke elkarrekintza horrek *bezero* eta *saltzaile* roletan kokatzen dituela hurrenez hurren eta, ondorioz, nolabait merkantilizatuta dagoela harremana. Beste behin, hori ez da ondoriorik gabekoa, ezberdin bezala markatzen baititu bata eta bestea (Everett, 2013, z.g.). Beraz, esan daiteke ez direla betetzen parekotasunaren ezta helburu partekatuaren integraziorako baldintzak (Everett, 2013, z.g.). Horrek, jakina, are gehiago zailtzen du hautemandako berdintasunerako (ekitate pertzibiturako) bidea.

Emaitzek erakutsi dute merkantilizazioa ez dela bakarrik saltzaile-bezero harremanetan ageri; sozializatzeko elkargune asko ere kontsumora bideratutako espazio pribatuak dira. Merkataritza-guneak aipatu dira elkarrizketetan eta bereziki azpimarragarria da Ekialdeko Barrutian kokatzen dela Donostiako handiena eta garrantzitsuena. Horiek merkatuak soilik araututako hiriaren simulakroak dira (Cornejo Portugal, 2006, 118-119. orr); eta bertan erabat lausotzen dira auzoetako hierarkia eta egituraketa sozial eta komunitarioak. Merkataritza-guneek *asmoa* kontsumora bideratzen dute eta kontsumo horretarako beharrezkoak ez diren elementuak ezabatzen dituzte. Haatik, esan daiteke atomizatutako talde eta banakoen asmoek taldeen arteko harremana zailtzen dutela.

Bestalde, tabernak ere aipatu dira bertakoen elkargune gisa: ostalaritza Euskal Herriko gizartearen sozializazio informalerako espazio esanguratsuenetakoa da eta, gainera, Lugosik (2009) aipatzen duenez, soziologoek, kultura-teorialariek edota geografoek ostalaritza erabili izan dute komunitatearen eta inklusioaren politika

ulertzeko, bereziki migrazio globalari buruzko eztabaidetan. Ikerketek erakusten dute otordu edo edari partekatuak gizarte-lotura, konfiantza eta hurbiltasuna sortzeko ahalmena dutela (Thurnell-Read, 2020; Woolley Lim, 2023; Lugosi, 2009); baina, era berean, talde-mugak markatu eta bazterketa-efektuak ere sor ditzaketela. Horregatik, tabernan *produktua* ez da sozializazioaren atzealde hutsa: askotan, harremana antolatzeko euskarri material eta sinbolikoa da.

Beraz, ikusi da merkataritza-guneak talde aniztasun handiagoa ekar dezaketela eta funtzio ezberdinek markatzen dituztela barne- eta kanpo-taldeak. Tabernak, ordea, ez dira hain toki anitzak izan ohi. Gainera, taberna ez da hiritik bereizitako kapsula bat: kalearekin, auzoarekin eta eguneroko bizitzarekin uztartuta dago. Hau da, tabernaren logika ez da, oro har, merkataritza-guneen barrualde isolatu eta homogeneizatzailearena, baizik eta kalearekin lotutako zirkulazio sozialarena. Dena dela, biak ala biak bihur daitezke integrazioaren oztopo nabarmen.

Ikusi da kalearen erabilera baldintzatzen duten beste faktore batzuk ere badaudela. Emaitzetan azaldu bezala, **kanpoaldeko auzoetako bizitza apalduz joan izanak eta lotarako auzo bihurtzen joan izanak eragina du *auzoko bizitza* delakoan txertatzeko zailtasunetan** (Telleria et al., 2026).

Gainera, etxebizitzara sarbidea mugatua eta baldintzatua da arrazoi ekonomikoengatik migratu duten pertsonentzat, prezio altuengatik eta higiezinen arloko arrazakeriaren ondorioz. Horren eragina ez da materiala soilik: **etxebizitza prekarioak, logelaka bizitzeak, maiz lekualdatzeak eta alokairuaren garestitzeak zaildu egiten dute auzoan errotzea, sareak sortzea, eskola-egonkortasuna mantentzea eta hizkuntza-komunitate batean txertatzea.** Beste era batera esanda, integrazioaren lehenengo fasea burutzeko egiturazko zailtasunek oso modu nabarian eragiten diete beste guztiei.

Beste alde batetik, ezin aipatu gabe utzi **zerbitzu publikoen erabilera mugatua. Kasu batzuetan horien funtzionamendua ezezaguna dela medio; beste batzuetan norbere egoerari buruzko pertzepzioak eta horri lotutako beldurrak, segurtasun faltak eta abar tarteko.** Norbere kokapen sozio-ekonomikotik imajinatzen ditugu gutako bakoitzari dagozkigun jarduerak edo praktikak (Bourdieu, 1980, 480. orr). Sozializazio prozesuen bitartez hartzen dugu gizartea eta bere funtzionamendua ulertzeko ezagutza erdi-kontzientea, betiere norberaren kokapen sozialetik, bizi-baldintzetatik eta aukera objektiboetatik abiatuta. Ondorioz, pertsonen nahiak, aukerak eta espazio jakinetan kokatzeko moduak ez dira banakako borondatearen emaitza hutsak; sozializazio-prozesuetan barneratutako muga, aukera eta itxaropenen arabera ere eratzen dira. Beraz, okupatu daitezken espazioak eta erabili daitezkeen zerbitzuen inguruko pedagogiaren falta somatzen da, sozializazio horretan berrikasi baitaiteke *nor egon daitekeen non* edota *nork egin dezakeen zer.* Gako horiek balio digute ulertzeko ikerketan identifikatu diren zenbait joera: etorri berriek beren burua kultur etxeetako edo kiroldegietako erabiltzaile bezala ez ikustea, esaterako. Eta, era berean, antzeko gakoak dira ikerketa honetako elkarrizketei uko egitea ulertzen lagundu diezaguketenak.

Laburbilduz, aipatutako prozesu orok erakusten dute talde homogeneorik ez dela, ez immigranteei ez bertakoei dagokienez. Aipatutako prozesu orok hamaika mundu sortzen dihardute.

8.2 NORABIDE BAKARREKO INTEGRAZIOA, ARRAZAKERIA ETA KLASISMOA

Hamaika munduren sorrera azaleratzen duten prozesu horiek bi auzi nagusi jartzen dituzte mahai gainean.

Lehendabiziko auzia da **nahasketa falta hori integrazioa norabide bakarreko prozesutzat ulertzearen ondorio dela**. Kokapen teorikoan aipatu bezala, ideologia horren arabera, integrazioa pertsona migratuek egin beharreko ibilbide gisa irudikatzen da nagusiki: haiek sartu behar dute aurrez existitzen den gizarte-ordenan. Honela gertatzen ez denean, gune askotan ez da planteatu ere egiten ea zer-nolako baldintzak eskaintzen dituen testuinguruak harrera, harreman, parekotasun edo parte-hartze errealerako. Hainbat dira irudikapen horretatik eratorritako falazia eta ondorio ez desiragarriak (Klarenbeekek, 2021). **Suposatutzat ematen du bertakoak, harrera gizartea, integratua dagoela; horrek muga bat suposatzen du aniztasuna kudeatzerako orduan**. Gainera, auzi horrek berebiziko garrantzia har dezake Euskal Herrian eta euskararekin lotuta, iraganeko gizarte-arrakalen eta gatazken garrantzia ezabatzea edo minimizatzea dakarrelako (Astor, 2012 eta Klarenbeekek, 2021). Bestalde, ustezko arau-sozial homogeneoak subjektu markatuak eta *arraroak* sortzen ditu eta horrek, beste behin, estigmatizazioak eta marjinazioak gidatutako ondorio zuzenak ditu horiengan (Klarenbeek, 2021, besteak beste). Eta, azkenik, integratu behar direnak eta integratzeko beharrik ez dutenak badaude, *integratutakoa* ez da inoiz *bertakoa*ren sinonimo izango (Klarenbeek, 2021, besteak beste). Esan bezala, etiketa horrek ondorio sozial eta psikologikoak ditu.

Bigarren auzi nabarmena da **auzo hauetako immigranteen integrazioaz jardutean arraza eta klase soziala oso estu loturik ageri direla**. Ezagutzen eta ikusten den arrazakeria mota ezin da klasismorik gabe ulertu (Moreno Márquez eta Aierdi Urraza, 2015): aztertutako auzoetako migrazio prozesuak askotan arrazoi ekonomikoak bultzatutakoak izan dira eta, beraz, arrazaren gaia klase sozial baxuarekin nahasten da. Ondorioz, bereziki garrantzitsua da arrazakeriaren eta aporofobiaren edota klasismoaren inguruko azterketa bateratua (Hellgren eta Gabrielli, 2021, z. g.). Batzuetan loturaren abiapuntua klase soziala izan arren, beste batzuetan arraza ere izan daiteke abiapuntu (Astor, 2012).

Esan daiteke, beraz, bat datozela superdibertsitatearen eta intersekzionalitatearen teoriak eta, horrek dakartzan ondorio negatiboak pairatzen dituztenei erreparatzeak zeresan berezia har dezakeela Ekialdeko Barrutiko auzoez jardutean. Bestelako ikerketa eta lanketetarako egiteke geratu da aztertzea gaztelaniarik gabe heldu diren etorkinen harreran eta integrazioan beren jatorrizko herrialdeak duen eragina (Europarren, magrebiarren eta asiarren arteko aldeak, esaterako), beren azal koloreak duena eta beren maila sozioekonomikoak duena.

8.3 EUSKARA?

Aurreko atalean landutako emaitzek erakutsi dute auzo horietan integrazioari buruzko galderak egiteak ez duela automatikoki euskararen auzia azaleratzen. Zehatzago esanda, **auzootan, euskararen presentzia oso baxua denez, euskararen inguruko ezagutza eta erabilera ez dira beharrezkotzat jotzen integraziorako fase ezberdinetan.** Modu oso nabarmenean hazi ziren XX. mendeko migrazio olatuan hiru auzoak. Olatu horretako immigrante asko ez ziren

euskaldundu eta, beraz, auzootako ordena soziolinguistikoa eraldatu egin zen. Horrek lurra landuta utzi zuen bigarren olatuaren nolakotasun soziolinguistikorako. Intxaurrondo, Bidebieta eta Altzako erreferentzialtasun soziokulturala eta euskararen erreferentzialtasunak ez dute bat egiten askotan. Ondorioz, bertakoa izateak esanahi, esperientzia eta praktika ezberdinak ditu. Horrela izanik, iritsi berrien eta bertakoen arteko elkarrekintzek eragina dute *bertakotasun* jakin batzuen transmisioan. Baina esanahi horiek ez dira parekotasunez agertzen: **auzootan, kuantitatiboki, euskararik gabeko edo euskara elementu sinbolikotzat baino ez duen *bertakotasun motak* probabilitate handiagoa du agertzeko eta etorri berriei transmititua izateko.**

Testuinguru soziolinguistiko honetan haurren papera nabarmentzen da, agente garrantzitsu baitira familia hizkuntza-politiketan (García Ruiz, 2023). Gurasoek euskarazko mundura egiten duten hurbilpena batzuetan kulturaren sinbologiari lotuta ageri da, baina, beste batzuetan, praktikotasunari ere lotzen zaio: haurrei etxeko lanekin laguntzeko beharra da arrazoi piztailea. Honek balio du tokiko egoera soziolinguistikoaz jabetzeko, baina euskara esparru akademikoarekin eta derrigortasunarekin lotzeko arriskua dakar. Atzerritik etorritako familietako haurrek ez dituzte harreman sozialak euskaraz garatzen, orokorrean, batzuetan kontrako jarrerak erakusteraino. Hemen datza hezkuntza ez-formalaren garrantzia, euskararen bestelako iruditeria eta konnotazioak azpimarratzeko potentzialtasuna duten gune gisa (adibidez, euskara-kirola, euskara-jolasa, euskara-gozamena).

Aipatu bezala, euskararen beharra ez ikusteagatik edo sentitzeagatik bihurtzen da ikusezin hainbat esparrutan. Behar hori gizarteak markatzen du, eta hainbat motatakoa izan daiteke: hizkuntza, nahiz eta kapital sinbolikoa izan, sinbologia horrek bihurgarritasun bat izan dezake lan arloan, sozialean, materialean… (Bourdieu, 1991 [1982]). Ikastetxeak salbu, auzo hauetan ez da antzematen euskara maila esanguratsu batean kapital bihurtzen den esparrurik. **Ondorioz, bizimodua beharrak gidatzen dien immigrante askoren kasuan, beharren hierarkizazioan oso atzean gelditzen da hizkuntza gutxituaren *beharra.***

9 AZKEN HAUSNARKETAK ETA AURRERA BEGIRA

9.1 INTEGRAZIOAREN IKUSPEGI HOLISTIKOA

Ikerketak erakutsi du integrazioa prozesu oso konplexua dela. Moreno-Fernándezen piramideak integrazio soziolinguistikoaren faseak erakusteaz gain, fase horien arteko loturen konplexutasunak adierazten ditu eta ustezko linealtasuna apurtzen du. Askotan, prozesuak gainjarri egiten dira edo aldi berean gertatzen dira eta, ondorioz, pertsonen beharren hierarkia aldatu egiten da.

Gainera, ez da nahikoa aniztasuna jatorri ezberdinen ikuspegitik soilik ulertzea; immigrazio-estatus desberdinek, lan-merkatuko esperientziek edota genero- nahiz adin-arrakalek erabat baldintzatzen dute immigranteen integrazio prozesua, besteak beste. Faktore horiek elkarren ondoan jarrita aztertzea eskatzen du superdibertsitatearen ideiak (Vertovec, 2007, 1025. orr).

Hori horrela izanik, integrazio soziolinguistikoa ezin da euskararen ezagutzaren eta erabileraren auzi gisa bakarrik aztertu; etxebizitza, klase soziala, arrazializazioa, instituzioetara sarbidea, eskolatze-eredua, auzoaren historia eta eguneroko biziraupen-baldintzak gurutzatzen diren prozesu gisa ulertu behar da, baita Ekialdeko Barrutian ere. Gurutzatze horiek dira konplexutasuna dakartenak; horien arabera eratzen dira gizarte sareak eta horien baitako hizkuntza-praktikak eratzen dituzten botere-harremanak.

Integrazioa, beraz, litzateke eskubideak, baliabideak, aitortza, parte-hartzea, harreman sozialak eta komunitateko kide izateko aukera instituzional, material, sinboliko eta soziolinguistiko errealak zabaltzen dituen prozesua. Beste faktore guztietan esku hartu gabe, ezinezkoa litzateke hizkuntzari lotutako parametroak soilik mugiaraztea.

9.2 ZER EGIN DAITEKE?

Integrazioaren ikuspegi holistikotik, beharrezkoa da esku-hartze mailakatu, zeharkako eta komunitarioa planteatzea, premia materialak eta aitortza sinbolikoa batera landuko dituena.

Lehenik eta behin, integrazioa norabide bikoitzean ulertu eta landu behar da. Arreta ez da jarri behar pertsona migratuengan soilik, harrera-gizarteak berak sortzen dituen mugak, ohiturak, bazterketak eta sarbide-arazoak ere aztertu eta eraldatu behar baitira. Integrazioaren ikuspegi asimilatzaileak pertsona migratuari eskatzen dio aurretik osatuta legokeen gizarte batean sartzea, baina ikerketak erakutsi du *gizarte hori* ez dela homogeneoa, ez dagoela guztiz integratuta eta, gainera, auzo berean hamaika mundu bizi direla elkarren ondoan. Beraz, helburua ez litzateke izan behar pertsona migratuak aurrez existitzen den ordena batera egokitzea, baizik eta **auzoan kide izateko baldintza material, sozial, politiko eta soziolinguistikoak zabaltzea.**

Herritar oro legitimatzeak, beraz, berebiziko garrantzia du. Baina ez da komeni *denak berdin balio duela* defendatzen duen ikuspegi neoliberala indartzea. Aniztasunaren legitimazio prozesua euskararen biziberritzean ardaztuta egon behar da, beste minorizazio batzuetan ardaztuta egoteaz gain. Argi ikusi da euskarak presentzia sozial baxua duela eta pertsona migratu askorentzat ez dela beharrezko baliabide gisa ulertzen. Ez da, beraz, euskararekiko interes edo errespetu falta auzi bat. Gertatzen dena da askotan euskara ez dela kapital sozial, ekonomiko edo sinboliko eraginkor gisa hautematen. **Horra erronka, beraz: euskara auzoko bizitza errealean erabilgarri, erreferente eta desiragarri bihurtzea.** Ez da soilik euskara eskaintzea, baizik eta, euskararen ondorio sinboliko eta materialak sortzea eta ikusaraztea. Hobeto bizitzeko, harreman hobeak izateko, arrakasta profesionalerako, gozamenerako eta beste hainbat onurarako erabilgarria dela erakustea. Garrantzitsua da erabilgarritasun hori integrazioaren klabean ulertzea, eta ez asimilazioarenean. Eta komenigarria da *euskalduntasunaren* iruditeria esentzialistatik urruntzea. Immigranteak inoiz eskuratuko ez duten euskalduntasun esentzial baten bidean jarri ordez, identitate inklusiboago baten parte izateko gonbita luzatu behar zaie, hizkuntza-errepertorio konplexuak eta superdibertsitatearen markoa aitortuz (Augustyniak, 2021).

Euskara ardatz hartuta bereziki garrantzitsua da **memoriaren lanketa egitea eta mitoak deuseztea**. Lehenik, gaur egungo migrazioak harreman kolonialen ondorio

direla gogoratu behar da. Bigarrenik, plano zehatzagoan, Ekialdeko Barrutiko auzoak migrazio-prozesuen bidez eraiki dira neurri handi batean, eta hori presente egitea ere komeni da. Horregatik, beharrezkoa da migrazioa gaur egungo auzi bezala planteatzen duten diskurtsoak edo *gu* eta *haiek* bereizten dituztenak desmitifikatu eta problematizatzea, baita auzoaren memorian migrazioaren ekarpena eta gorabeherak ikusgarri egitea ere. Lagungarria izan daiteke migrazioak, salbuespen edo mehatxu gisa irudikatu beharrean, auzoaren bilakaera historikoaren parte gisa ulertzea. Hirugarrenik, euskararen bilakaera sozial historikoaren gaineko kontakizuna auzotar ororengana heltzeko modua egin behar da. Gaur egun nagusiki eskola eremuarekin eta administrazioarekin lotuta hautematen den hizkuntzaren inguruan aurreko hamarkadatan gertatu dena ezagutzea lagungarri izan daiteke beste begirada bat eragiteko. Altza, Intxaurrondo eta Bidebietako bizilagunak nagusiki euskaraz bizi zirenekoa, beren hizkuntza bizi nahi izanagatik jazarriak izan diren euskaldunena, babes ekonomiko eta instituzionalik gabe hizkuntza biziberritze prozesu arrakastatsua piztu zuen herri-mugimenduak auzoan egindako bidea… Pedagogia horretatik eraiki behar dira bai iraganaren inguruko diskurtso konplexua, bai orainaldiko enpatiazko harremanak eta baita etorkizunaren irudikapena ere.

Aurrekoaz gain, **hamaika munduen artean elkarreraginerako guneak sortzea komenigarria da**, baina ez edonolakoak. Taldeen arteko kontaktuak ez du berez integrazioa bermatzen. Kontaktuak egoera eraldatzeko balio dezan, gutxienez hiru baldintza bete behar ditu: parekotasun-sentsazioa, helburu komunak eta erakunde publiko edo sozialen babesa. Horregatik, ez da nahikoa pertsona migratuak eta bertakoak leku berean jartzea. Elkarrekin zerbait egiteko aukera sortu behar da. Eta ez jatorrien araberako taldeetan, helburuen araberakoetan baizik. Gakoa da immigranteak norbanako bezala parte hartzea (Kindler et al., 2015) eta auzoko gai bati, erronka bati edo arazo bati erantzutea. Izan daiteke espazio bat hobetzeko, jai bat antolatzeko, kirol-talde baten jardueran, elikaduraren edo zaintzaren inguruko ekimen batean, eskolako komunitatearen testuinguruan edo gazteen aisialdian, adibidez.

Bestalde, espazio horietara eta, orokorrean, **auzoko espazio partekatuetara sarbidea landu behar da.** Pertsona askorentzat liburutegia, kiroldegia, kultur etxea, auzo-elkartea edo euskara-elkartea ez dira espazio neutralak. Ez dira *denontzat* izateagatik automatikoki denontzat eskuragarriak. Batzuetan ez da jakiten nola funtzionatzen duten; beste batzuetan ez da sentitzen norberarentzat direnik; eta, beste askotan, ordutegiak, prezioak, hizkuntza, zaintza-lanak edo esperientzia txarrak oztopo bihurtzen dira. Beraz, espazioen pedagogia egin behar da: nor sar daitekeen, zer egin daitekeen, nola parte hartu daitekeen eta zer eskubide dauden argi, hurbil eta modu praktikoan azaltzea. Pertsona migratu askok dituzten jatorri berekoen sareak funtsezkoak dira lehen harrera, lana, etxebizitza edo informazioa eskuratzeko. Baina gerora mugatzaile bihur ez daitezen, komeni da talde propioaz haragoko harremanak, informazioa, baliabideak eta konfiantza sortzen dituzten sareetara zubiak eraikitzea. Auzo mailako denetariko integrazioari begira onuragarri izateaz gain, pertsona bakoitzaren garapen sozial eta pertsonalerako abantailak ekarriko ditu bide honek.

Azkenik, **diskurtsoaren lanketa ezinbestekoa da esandako guztia auzoetan dinamika eraldatzaile bat aktibatu eta mobilizatzeko.** Ikusi da arrazakeria, klasismoa eta aporofobia ez direla kanpoko fenomenoak; eguneroko komentarioetan, susmoetan, etxebizitzaren testuinguruan, lan-banaketan, kaleko beldurretan edo zurrumurruetan agertzen dira. Horregatik, beharrezkoa da instituzioetan,

elkarteetan, ikastetxeetan, kiroldegietan, merkataritzan eta auzo-ekimenetan horiek baliogabetzeko diskurtsoa lantzea. Eta ez soilik gorroto-diskurtso esplizituen aurka egiteko, baita asmo oneko paternalismoaren arriskuak saihesteko ere, *laguntzera* bideratutako diskurtso eta praktikek, batzuetan, pertsona migratuak gabeziaren, dependentziaren edo esker onaren posiziora bultzatzen ditu eta. Auzokide guztiak duintasun eta errespetu arau sozial berberen arabera tratatuak izan behar dira. Eta guztien arteko enpatia eta guztien parte hartze parekidea ongizate kolektibora eta komunitate osasuntsura bide gisa proposatu behar dira uneoro.

10 BIBLIOGRAFIA

Aurrekoetxea, A. eta Vázquez, A. (2020). Migranteak herrira, euskarara. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria / revista de pensamiento e historia, 65,* 100-104. https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7690625 -tik lortua.

Astor, A. (2012). Memory, community, and opposition to mosques: the case of Badalona. *Theory and Society, 41*(4), 325–349. https://doi.org/10.1007/s11186-012-9169-5

Berry, J. W. (2002). A psychology of immigration. *Journal of Social Issues, 57*(3), 615-631. https://doi.org/10.1111/0022-4537.00231

Blommaert, J. eta Verschueren, J. (1998). The role of language in European nationalist ideologies. B. B. Schieffelin, K. Woolard eta P. V. Kroskrity (Edk.)-en, Language ideologies: Practice and theory-n (pp. 189-210). Oxford University Press. https://doi.org/10.1075/prag.2.3.13blo

Bourdieu, P. (1980). *Le sens pratique*. Les Éditions de Minuit: Paris.

Boudieu, P. (1991). Language and symbolic power (J. B. Thompson, Ed.; G. Raymond & M. Adamson, Itzul.). Harvard University Press. (Jatorrizko lana 1982an argitaratua).

Bujan Vidales, K. (2001). "Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lanetan. *Revista de Psicodidáctica 11–12*, 133–142. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/48105/320-403-1-PB.pdf?sequence=1&isAllowed=y -tik lortua.

Cornejo Portugal, I. (2006). El centro comercial: ¿una nueva forma de "estar juntos"? *Cultura y representaciones sociales: Un espacio para el diálogo transdisciplinario*, *1*(1), 93-127. https://www.scielo.org.mx/pdf/crs/v1n1/v1n1a4.pdf -tik lortua.

De Fina, A. (2020). Doing narrative analysis from a narratives-as-practices perspective. *Narrative Inquiry, 31*(1), 49-71. John Benjamins Publishing Company. https://doi.org/10.1075/ni.20067.def

De Fina, A. & Georgakopoulou, A. (2008). Analysing narratives as practices. *Qualitative research, 8*(3), 379-387. Sage Publishing. http://doi.org/10.1177/1468794106093634

Eusko Jaurlaritza. (2018). *Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman: diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak.* https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/aniztasuna/Atzerritar_jatorriko_ikasleen_eskolatzea_EAEko_eskola_sisteman.pdf -tik lortua.

Everett, J. A. C. (2013). Intergroup Contact Theory: Past, Present, and Future. The *Inquisitive Mind, 2*, z.g. https://www.in-mind.org/article/intergroup-contact-theory-past-present-and-future -tik lortua.

García Ruiz, M. (2023). Testuinguru erdalduneko D ereduko ikastola bateko gurasoen Familia Hizkuntza-Politika Eleaniztuna. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://hdl.handle.net/10810/61317 -tik lortua.

García Vázquez, M. R. (2008). Actitudes de aculturación ante la inmigración; opiniones de agentes en el municipio de Vícar (Almería). *Nimbus, 21-22*, 121-132. https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2899873.pdf -tik lortua. Ekoizpen Zientifikoaren Ataria.

Gómez Walteros, J. A. (2010). La migración internacional: teorías y enfoques, una mirada actual. *Semestre Económico, 26*(13), 81-100. https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3236897 -tik lortua.

Gutiérrez Silva, J. M., Romero Borré, J., Arias Montero, S. R. eta Briones Mendoza, X. F. (2020). Migración: Contexto, impacto y desafío. Una reflexión teórica. *Revista de Ciencias Sociales, 26*(2), 299-313.

Halperin, S. (2023). The far-right in modern world history. *Globalizations, 20*(5), 731-751. https://doi.org/10.1080/14747731.2021.1984734

Harvey, D. (2005). The Sociological and Geographical Imaginations. *International Journal of Politics, Culture, and Society, 18*, 211–255. https://doi.org/10.1007/s10767-006-9009-6

Heller, M. Pietikäinen, S. & Pujolar, J. (2018). *Critical Sociolinguistic Research Methods: Studying Language Issues that Matter*. Routledge.

Hernández García, J. M. (2010). Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarrizko hurbilpena. *Soziolinguistika Eskuliburua* (287-348. orr). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua eta Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/eskuliburua_osoa.pdf -tik lortua.

Ikuspegi: Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2025). *Barometroa 2025: Atzerritar jatorriko biztanleen inguruko pertzeptzioak eta jarrerak EAEn.* Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. https://ikuspegi.eus/files/publicaciones/214_4.pdf -tik lortua.

Klarenbeek, L. M. (2021). Reconceptualisinng 'integration as a two-way process'. *Migration studies, 9*(3), 902-921. https://doi.org/10.1093/migration/mnz033

Larrea Mendizabal, I. *Les actituds lingüístiques dels immigrants panjabis adults a Catalunya*. [Doktorego tesia, Universitat Pompeu Fabra]. http://hdl.handle.net/10803/402437 -tik lortua. Tesis Doctorals en Xarxa.

Lugosi, P. (2009). The production of hospitable space: commercial propositions and consumer co-creation in a bar operation. Space and Culture, 12(4), 396-411. https://doi.org/10.1177/1206331209348083

Martín Criado, E. (2014). Mentiras, inconsistencias y ambivalencias. Teoría de la acción y análisis de discurso. *Revista Internacional de Sociología, 72*(1), 115-

138. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. https://doi.org/10.3989/ris.2012.07.24

Mason, J. (2002). *Qualitative researching* (2. ed.). Sage Publishing.

Mata-Codesal, D. eta Aramburu Otazu, M. En las fronteras de la autoctonía. Migrantes internos e internacionales. *Estudios Fronterizos, 26,* 1-25 [e160 artikulua]. https://doi.org/10.21670/ref.2502160

Mayan, M. J. 2009. *Essentials on Qualitative Inquiry*. Left Coast Inc.

Micolta león, A. (2005). Teorías y conceptos asociados al estudio de las migraciones internacionales. *Trabajo Social, 7*, 59-76.

Migraziorako Nazioarteko Erakundea. (2024). *UN-iLibrary.* https://www.un-ilibrary.org/content/books/9789292687281/read -tik lortua.

Moreno Fernández, F. (2009). Integración sociolingüística en contextos de inmigración: marco epistemológico para su estudio en España. *Lengua y migración / Language and Migration, 1*(1), 121-156. https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3065539 -tik lortua.

Moreno Márquez, G. eta Aierdi Urraza, X. (2015). *Migrazioen soziologia: gerturapen teoriko eta praktikoa.* Euskararen arloko errektoreordetzaren sare argitalpena. https://ikasmaterialak.ehu.eus/soziologia/migrazioen-soziologia -tik lortua.

Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea. (2024). *International Migration Outlook.* https://www.oecd.org/en/publications/international-migration-outlook-2024_50b0353e-en.html -tik lortua.

Paredes García, F. (2020). Un modelo para el análisis de la integración sociolingüística de la población migrante: fundamentos, dimensiones e instrumentos. *Lengua y migración / Language and Migration, 12*(1), 39-81. https://erevistas.publicaciones.uah.es/ojs/index.php/lenguaymigracion/article/view/65 -tik lortua.

Reher, D. eta Requena, M. (2009). The National Immigrant Survey of Spain: A new data source for migration studies in Europe. *Demographic Research, 20,* 253-278. https://www.jstor.org/stable/26349316 -tik lortua.

Scandroglio, B., López Martínez, J. S. eta San José Sebastián, M. C. (2008). La Teoría de la Identidad Social: una síntesis crítica de sus fundamentos, evidencias y controversias. *Psicothema*, *20*(1), 80-89. http://www.psicothema.es/pdf/3432.pdf -tik lortua.

Șuiu, A. (2019). «España es mi hogar»: movilidad de la diáspora rumana. *Anuario CIDOB de la Inmigración 2019* (274-298. orr) https://doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2019.274

Talmy, S. (2010). Qualitative Interviews in Applied Linguistics: From Research Instrument to Social Practice. *Annual Review of Applied Linguistics, 30*, 128-

148. Cambridge University Press. https://doi.org/10.1017/S0267190510000085

Tekinırk, M. (2020). Globalization, the rhetoric of nationalism, and the resilience of neo-liberalism. L. Greenfeld & Z. Wu-en (Edk.), *Research Handbook on Nationalism* (215-229. orr). Edward Elgar Publishing. https://doi.org/10.4337/9781789903447.00027

Telleria, K., Otamendi, I., Guerras, A., Santolaria, O., Altuna, O., Otxotorena, M. eta Basurto, A. (2026) Hirigintzaren Eragina Euskararen Erabileran. Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hirigintzaren-eragina-euskararen-erabileran/

Thurnell-Read, T. (2020). 'If they weren't in the pub, they probably wouldn't even know each other': Alcohol, sociability and pub based leisure. *International Journal of the Sociology of Leisure, 4,* 61-78. https://doi.org/10.1007/s41978-020-00068-x

Uranga, B., Basurto, A. eta Eguiguren, A. (2024). *Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan.* Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2025/05/Jatorrian-gaztelania-hizkuntza-ofiziala-duten-etorkinen-INT-SLG-Gipuzkoan.pdf -tik eskuratua.

Uranga, B., Basurto, A. eta Laita, P. (2023). *1950-1970eko etorkinen integrazio soziolinguistikoa Altzan*. Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2024/01/1950-1970-Immigrazioa-TXOSTENA.pdf -tik eskuratua.

Viruela Martínez, R. (2007). Inmigrantes rumanos en España: aspectos territoriales y procesos de sustitución laboral. *Scripta Nova: revista electrónica de geografía y ciencias sociales, 10,* 205-228. https://www.ub.edu/geocrit/sn/sn-222.htm -tiki lortua.

Vertovec, S. (2019). Talking around super-diversity. *Ethnic and Racial Studies, 42*(1), 125-139. https://doi.org/10.1080/01419870.2017.1406128

Woolley, K. eta Lim, S. (2023). Interpersonal consequences of joint food consumption for connection and conflict. *Social and Personal Psychology Compass, 17*(6), 1-16. https://doi.org/10.1111/spc3.12748

11 ERANSKINAK

11.1 IMMIGRANTEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETEN GIDOIA

0. Presentación

- ¿Quién eres?
- Perfil laboral / académico
- Origen(es)
- Redes interpersonales
- Ocio
- Zonas/territorios de rutina
- Familia y relaciones familiares
- Balioak

1. Inicio proceso de inmigración

- ¿Cómo ha sido tu proceso de migración?
  - Origen (lugar de procedencia): Estado, región, ciudad
  - Recorrido migratorio (lugares de paso o estancias anteriores)
  - Año, edad (que llegaste)
  - Motivo (voluntario, obligación) (laboral, económico, reagrupamiento familiar, otros motivos familiares, perspectivas de futuro)
  - Familia alrededor
    - Información y situación de migración familiar
  - Proceso y situación administrativa (nacionalidad)

2. Biografía lingüística personal

- ¿Qué lenguas hablas? ¿Por qué? (cómo las has aprendido, relación en cuanto a uso)
  - Repertorio, registro, competencia, funciones
- ¿Qué lenguas se conocen y qué lenguas se hablan a tu alrededor? (quiénes son esas personas que están alrededor)
- Situación sociolingüística del lugar de origen (¿minorización?)

3. Integración (0. maila, biziraupeneko sozializazioa)

- ¿Cómo fue la llegada? (Redes familiares, redes sociales de origen, redes sociales de llegada)
- ¿Cómo ha sido el proceso de acceso a la vivienda aquí? ¿Cómo es la relación con el ayuntamiento? (u otras instituciones, ayudas sociales)
- En esos momentos iniciales ¿tuviste conocimiento de que aquí se hablaba euskera? (escrito, oído…)

4. Integración LABORAL / ESCOLAR (1.maila, integrazio laborala/eskola)

<u>En el caso de que estés trabajando…</u>

- ¿Cómo ha sido el acceso al mercado laboral? ¿Cómo conseguiste el trabajo? (cómo te sentiste recibido/a / acogido/a y qué actitudes encontraste)
- ¿Has tenido acceso a contrato laboral regular? ¿Qué opinas de las condiciones laborales que tienes (o has tenido)?
- ¿Tienes relación con otros/otras trabajadoras/es?

- ¿Qué lenguas se usan en tu trabajo? (compañeros/as, jefes/as, clientes, pacientes…)

En el caso de estudiantes…

- ¿Cómo ha sido el acceso a la escuela? ¿Quién te ha informado? (cómo te sentiste recibido/a / acogido/a y qué actitudes encontraste)
- ¿Cómo es la relación con los responsables, profesores/as, dirección?
- ¿Qué tipo de relación tienes con tus compañeros/as?
- ¿Qué presencia tiene el euskera en este entorno?

En el caso de hijos/hijas:

- ¿Cómo ha sido el acceso a la escuela? ¿Quién te ha informado? (cómo te sentiste recibido/a / acogido/a y qué actitudes encontraste)
- ¿Cómo es la relación con los responsables, profesores/as, dirección?
- ¿Tienes relación con otros padres o madres?
- ¿Qué presencia tiene el euskera en este entorno?

5. **Integración SOCIAL Y CULTURAL (2.maila, integrazio SOZIALA ETA KULTURALA)**
   - ¿Qué relación tienes con tus vecinos/as de tu barrio? (zonas) ¿Con quién? ¿Cómo la valoras? (dificultades, facilidades, grados/intensidad) (cómo te sentiste recibido/a / acogido/a y qué actitudes encontraste)
   - ¿Qué tipo de actividades llevas a cabo en tu barrio? (zonas) (ocio, cultura, deporte, compras…) ¿Con quién?
   - ¿Qué hacen las otras personas que viven en el barrio?
   - ¿Ha cambiado mucho tu forma de vivir desde que estás aquí? (aspectos) ¿Por qué?
   - ¿Hay actividades culturales en euskera en tu alrededor? (conocimiento, participación…) ¿A quién suelen ir dirigidas? ¿Quién participa?
   - ¿Cómo te arreglas con las lenguas? ¿Has tenido algún problema o has sufrido alguna discriminación por hablar diferente? (lengua, variedad, acento, competencia)
   - ¿Se dirigen a ti en euskera?
   - ¿Qué actitudes tiene la gente hacia tu(s) lengua(s)?
6. **Integración IDENTITARIA (3.maila, integrazio identitarioa)**
   - ¿Cuáles son las relaciones con el país de origen? (contacto, viajes, estilo de vida, identificación, lenguas)
   - ¿En qué medida mantienes tu cultura de origen?
   - ¿Y tus hijos/hijas?
   - ¿Cuáles son tus intenciones de futuro? (expectativas, deseos… de lugar, familiar, perfil laboral) (posibilidad de retorno)
   - ¿Y tus hijos/hijas?
   - ¿Te sientes de aquí? ¿Es compatible ser de dos lugares?
   - ¿Cómo ves la situación de las lenguas que se hablan aquí? (castellano, euskera, otras…) (identificación con el euskera/todas)
7. **Sobre la política lingüística**
   - ¿Qué te parece el trato que se les da al euskera y al castellano aquí? (instituciones, asociaciones, sociedad)

- ¿Qué te parecen los esfuerzos para que la gente aprenda y hable euskera?
- ¿Crees que está bien que se pida un conocimiento del euskera para algunos trabajos?
- ¿Has oído hablar euskera? ¿Quién crees que lo hablan más? (personas mayores, niños, padres y madres...)
- ¿Crees que aprender euskera puede ayudar a progresar social y económicamente?
- ¿Te has planteado alguna vez aprender euskera? ¿Crees que se dan las facilidades necesarias para aprender a hablar? ¿Cómo podría mejorarse? ¿Cuáles son las dificultades principales?
- ¿Qué cambiarías respecto a lo que se hace con las lenguas?

8. Para finalizar

- ¿Qué te parece este estudio?
- ¿Por qué crees que queremos saber sobre estos temas?
- ¿Hay alguna pregunta que no te hayamos hecho pero que tú harías?
- ¿Quieres contarnos algo más?

11.2 BERTAKOEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETEN GIDOIA

1. **Presentación / Aurkezpena**
   - Perfil laboral y/o académico / Profil profesionala
   - Zonas/territorios de rutina / Ohiko tokiak
   - Redes interpersonales / Harreman sarea (zergatik ari gara elkarrizketa hori berari egiten?)
2. **Procesos de inmigración / Migrazio prozesuak**
   - ¿Cómo son los procesos de migración de las personas que conoces? / Nolakoak dira ezagutzen dituzun pertsonen migrazio prozesuak?
     i. Origen y recorrido / Jatorria eta ibilbidea
     ii. Año, edad / Adina
     iii. Motivo (voluntario, obligación) (laboral, económico, reagrupamiento familiar, otros motivos familiares, perspectivas de futuro) / Arrazoia
     iv. Familia alrededor / Zein da pertsona immigranteen familien egoera?
        - Información y situación de migración familiar
     v. Proceso y situación administrativa (nacionalidad) / Egoera legala
3. **Procesos de intercomprensión lingüística / Elkar-ulertzerako prozesu linguistikoak**
   - ¿Qué lenguas utilizas con las personas migrantes? / Zein hizkuntza erabiltzen duzu pertsona immigranteekin?
   - ¿Y qué lengua utilizan esas personas entre ellas? ¿Eta pertsona horiek beraien artean zein hizkuntza hitz egiten dute?
   - ¿Has hablado con esas personas sobre la situación lingüística? Hitz egin izan duzu pertsona horiekin egoera soziolinguistikoaren inguruan?
     i. ¿Qué temas resultan relevantes? / Zein gai izan ohi dira garrantzitsuak?
   - ¿Qué discursos ves que se den alrededor de este tema en nuestra sociedad? Gai honen inguruko zein diskurtso antzematen dituzu gure gizartean?
4. **Integración / Integrazioa (0. maila, biziraupeneko sozializazioa)**
   - ¿Conoces cómo fue la llegada de estas personas? (Redes familiares, redes sociales de origen, redes sociales de llegada) / Ezagutzen al duzu pertsona horien etorrera prozesua nolakoa izan zen?
     i. Acceso a vivienda / Etxebizitzara sarbidea
     ii. Relaciones con instituciones / Instituzioekin harremana
     iii. Lengua (conocimiento lingüístico y metalingüístico) / Hizkuntza (ezagutza linguistikoa eta metalinguistikoa)
5. **Integración laboral y/o escolar / Lan munduan edota hezkuntzan integrazioa (1. maila)**
   - ¿Conoces cómo fue la integración laboral y/o escolar de estas personas? / Ezagutzen al duzu pertsona horien lan mundurako edota hezkuntzarako integrazioa nolakoa izan zen?
     i. Acceso / Sarbidea

ii. (Lana) Tipo de contrato / Kontratu mota
iii. (Lana) Ámbito laboral / Lan arloa
iv. (Hezkuntza) Tipo de centro / Zentru mota
v. Redes interpersonales / Harreman sarea
vi. Lengua vehicular / Baliatutako hizkuntza

- ¿Se llevan a cabo acciones para la igualdad de oportunidades en este espacio? Ba al dago espazio horietan aukera berdintasunera bideratutako ekintzarik?

6. **Integración social y cultural / Integrazio soziala eta kulturala (2.maila)**
   - ¿Qué relación tienes con tus vecinos/as de tu barrio? ¿Con quién? ¿Cómo la valoras? (dificultades, facilidades, grados/intensidad) / Zein harreman mota duzu zure bizilagunekin? Norekin? Nola baloratzen duzu hori?
   - ¿Qué tipo de actividades llevas a cabo en tu barrio? ¿Con quién? / Zein ekintza burutzen dituzu zure auzoan? Norekin?
   - ¿Qué hacen las otras personas que viven en el barrio? / Zer egiten dute auzoan bizi diren beste pertsonek?
   - ¿Está cambiando esta situación? Aldatzen ari al da egoera hau?
   - ¿Hay actividades culturales en euskera en tu alrededor? ¿A quién suelen ir dirigidas? ¿Quién participa? Ba al dago euskarazko jarduera kulturalik zure inguruan? Norentzat izan ohi dira? Nork hartzen du parte?
7. **Integración identitaria / Integrazio identitarioa (3.maila)**
   - ¿Conoces cómo son las relaciones de estas personas con sus países de origen? (contacto, viajes, estilo de vida, identificación, lenguas) / Ezagutzen al duzu pertsona hauek beren jatorrizko herrialdeekin duten harremana?
   - ¿Conoces sus intenciones del futuro? / Ezagutzen al dituzu beraien etorkizuneko planak?
   - ¿Es, en tu opinión, compatible ser de dos lugares simultáneamente? Zure ustez posible al da bi lekutakoa izatea aldi berean?
     i. ¿Crees que llega a pasar? / Uste duzu horrelakorik gertatzen dela?
        - En el caso de que sea posible pero no llegue a pasar, ¿esto por qué ocurre? / Gerta badaiteke baina gertatzen ez bada, zergatik da?
8. **Sobre la política lingüística/ Hizkuntza politiken inguruan**
   - ¿Qué te parecen los esfuerzos para que la gente aprenda y hable euskera? / Zer iruditzen zaizkizu jendeak euskara ikasteko eta hitz egiteko egiten diren esfortzuak?
   - ¿Crees que aprender euskera puede ayudar a progresar social y económicamente? / Uste duzu euskara ikasteak maila sozial eta ekonomikoan aurrera eta ekonomikoan aurrerapausuak ematea ekar dezakeela? pausoak ematea ekar dezakeela?
   - ¿Qué cambiarías respecto a lo que se hace con las lenguas?
9. **Para finalizar / Amaitzeko**
   - ¿Qué te parece este estudio? / Zer iruditzen zaizu ikerketa proiektu hau?

- ¿Por qué crees que queremos saber sobre estos temas? / Zergatik uste duzu nahi dugula gehiago jakin gai hauen inguruan?
- ¿Hay alguna pregunta que no te hayamos hecho pero que tú harías? / Ba al dago egin ez dizugun baina zuk egingo zenukeen galderarik?
- ¿Quieres contarnos algo más? / Nahi diguzu zerbait gehiago kontatu?